

85

4 euro • 2004ko OTSAILA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: ALAZNE PETUYA •
ESPERIENTZIA: IRAKURKETA ETA
PLASTIKA • ESPERIENTZIA: MIRO •
HAUR ETORKINEN HIZKUNTZA •
BEURKO: IRRATIA ETA MINTZAMENA



GAIA

0-3 urteko haurrak
eta euren eskolak

TARTALO



PATXI ERREMENTARIA



GIZON HARRIGARRIAK



MAKILAKIKKI



Bideoan ikusteko



Ipuinak irakurtzeko



Jokoak dibertitzeko

Eta gainera
lau ipuinak
VHS bideoan

EUSKAL
IPUINAK



Laguntzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultur, Datas, Gaiak eta Kiri Departamentua



gaia

0-3 URTEKO HAURRAK ETA EUREN ESKOLAK

EAEh 0-3 urteko dekretuak adin tarte hori arautu du. Askotariko iritziak sortu dira horren inguruan. Nafarroan, bestalde, dekretuaren zain darrate. Bateko eta beste iritziak bildu ditugu gai honetan.



elkarrizketa

ALAZNE PETUYA

Seaskako Pedagogia zuzendariarekin pedagogiaz, gogopeta egin beharraz, formazioaz, Iparraldeko egoeraz eta hainbat gauzei buruz aritu gara ele xume eta pausatuen artean.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

0-3 URTEKO HAURRAK ETA EUREN ESKOLAK

18 elkarrizketa

ALAZNE PETUYA

26 esperientzia

...eta Miróren koadro bat jakintza iturri bihurtu zen

28 esperientzia

Irakurketa eta plastika

Villabonako Ernioea instituta

29 kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

Haur etorkinei hizkuntza nola irakatsi.

Oinarrizko prestakuntzak eta jokabideak

Uri Ruiz Bikandi

33 berriak

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!

Irratia, mintzamina lantzeko makina

Barakaldoko Beurko institutua

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Airhoa Azpiroz Erredakzioa: Joxe Mari Auzendi, Ixiar Eizagintze Erredakzio batzordea: Mikel Estorika, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbatua, Felix Basurko Aines Duafau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erricndo, Iobia Fernandez, Anaia Vazquez, Iontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Gibeuru. Diseinua: TRAM&Graf!k Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Oizartzungo Udal Haur Partzuerga. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila . Kopurua: 3.500 ale hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz baliu zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

hik hasik

zure parte-hartzea

ezinbestekoa du harpide zaitez!

40 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

www.hikhasi.com

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena.....1. Deitura.....
2. DeituraTel.:.....
HelbideaPosta Kodea.....
Herria.....Herrialdea.....
Ikastetxea.....Herria.....
IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

40 euro

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54



editoriala otsaila

Hezkuntzaren egiteko nagusietakoa bazterketaren aurka jokatzea da



Oteitzak hala zioen: Herri bakoitzak, garai historiko bakoitzak bezala, haur eredu bat ez ezik, gizaki eredu bat ere behar du haurri erakusteko .

Aspaldikoa da publikotasunari buruzko hausnarketa Euskal Herrian.

1977an “Euskal Eskola Publikoa” aldarrikatu zuten ikastolek Loiolan egindako batzarrean. Garai hartan, Euskal Herriak bere botere politikoa lortzen zuenean, indartzen eta trinkotzen ari zen ikastola eredu egokia izan zitekeela pentsatzen zen etor zitekeen administrazio berriarentzat.

1997ko urtarilean, hau da, duela 25 urte sare publikoko sektore berritzailetik *“Alternativa a la enseñanza”* idatzian eskola publikoaren eredu berri bat proposatzen zen: “Euskal Eskola Publikoa”. Horrela zioen: *“Procediendo a una planificación auténticamente democrática de todo el sistema educativo, con un control de todas las instancias directamente implicadas en él, con auténtica gestión democrática de los centros, quienes gozando de autonomía hacen realidad el pluralismo ideológico”*.

1983an bi lege proposamen agertu

ziren Gasteizko parlamentuan. Alde batetik, EIKE legea zeritzona. Horrek, bi sare publiko sortzen zituenaren kritika jaso zuen. Eta beste aldetik, EEPA legea, herritik sortutako ikastolen izaera ez errespetatzearen eta asimilazio hutsa zekarrenaren kritika jaso zuena.

1988an Gasteizko parlamentuak “Ikastolak eta Herri-Eskola biltzeko” legea onartu zuen. Bertan hau zioen: *“Hezkuntza-sareen birrantolakuntza, esparru honetan, herri-eskolen sarea eta ikastolena elkartzeko bide gisa ulertzen da, horren azken ondorioa bata-besteak elkarri egindako ekarketez aberastutako Herri-Eskola izanik”*.

1993an “Euskal Eskola Publikoaren” legea onartu zuen Gasteizko parlamentuak. Lege horrek ez zituen ikastoleatik egin ziren ekarpenak jaso eta ondorioz, legea ez onartzea erabaki zuten ikastolek batzar orokorrean.

Gure ustez, lege hark ez zion eskola ereduari erantzun, administrazio ereduari baizik. Hiru sare izatetik bitara

pasatzea zeukan helburu.

Gaur egun, ia hamaika urte pasa direnean, publikatu ez ziren ikastolak trinkotzen diraute, Euskal Herri osoko zentroak Europa mailako elkarte batean juridikoki batuz. Aldi berean, publikatu ziren batzuk Sortzen-Ikasbatuaz-en elkartetik autonomiadun eskola publiko berria aldarrikatzen dute.

Horrek guztiak ez al du adierazten duela 25 urte eskola publikotik bertatik eskatzen zena? Eta ez al du erakusten ikastolek euren sorreratik garatu duten eskola ereduak ez direla administrazioen aldetik kontuan hartu?

Hezkuntzaren egiteko nagusietakoa bazterketaren aurka jokatzea bada, anitza izatea, denoi erantzutea, eskola barneratzailea garatzea; hau da, ikasle bakoitzaren ahalmenetik eta ezintasunetik abiatzea eta aukera berdintasuna izatea, zergatik ez antolatu sentsibilitate desberdinak jasoko dituen hezkuntza publiko eredu berria denok tokia izan dezagun?

kronika

Erljio kontuekin dabilta estatu espainiarra zein frantsesa, eta Euskal Herrian eragina dute, halaberrez. Estatu espainiarrean Gizarte, Kultura eta Erljioa ikasgaia arautzeko Errege Dekretua ezarri da. Horren aurrean, EILAS sindikatuak helegitea aurkeztu zuen iazko irailean. Sindikatuaren ustez, konfesionala ez den estatu laiko batean erljioa derrigorrezkoa izatea, aukera erljioa derrigor adierazi behar izatea eta dekretu horietako beste hainbat osagai ez dira legezkoak. Espainiako Auzitegi Gorenak onartu egin du helegitea. Horrez gain, EILASek kanpaina bati ekingo diola adierazi du, "oinarrizko eskubideen kontrako neurria" dela azaltzeko. Bien bitartean, estatu frantsesean bestelako neurriak hartu dituzte. Frantziako Gobernuak onartu du eskoletan erljio ikurrak erabiltzea debekatzen duen legea. Otsailaren 3an aurkeztu zuten Asanblada Nazionalean eta prozesuak aurrera darrai, jendea kalera atera arren protesta egitera.



Euskal Unibertsitatearen legea berriz eztabaidan

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Unibertsitatearen lege proposamena eztabaidatzen hasiko dira berriz ere Eusko Legebiltzarrean. Prozesua otsailaren 2an hastekoa da, eta iaz hitzartutako azken testutik abiatuko dira; alegia, hirukoaren jatorrizko testua eta Sozialista Abertzaleen, PPren eta PSE-EEren zuzenketa partzialak biltzen dituen testuak behar duela izan oinarria. Prozesua hasi eta partidu politikoei aste-beteko epea izango dute zuzenketa aurkezteko. Gero Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura batzordeak hartuko du eztabaida.

Euskal Unibertsitate Legea onartzeko bigarren saiakera izango da hau. Joan den abenduan Eusko Legebiltzarrean bozkatu zuten, lehen aldiz, lege proposamena, baina gehiengorik lortu gabe. Izan ere, EAJ, EA eta IU-

EBren hirukoak lege proposamena idatzi eta osatzeko prozesuan zehar talde politikoei lortutako akordioak bertan behera gelditu ziren. PPK eta PSE-EEK euren zuzenketa eta ekarpenak erretiratu zituzten, eta horren ostean, Sozialista Abertzaleekin lortutako akordioa bertan behera utzi zuen hirukoak.

Hilabete geroago, urtarrilaren 21an, Eusko Legebiltzarrak ezohiko osoko bilkura egin zuen, eta bozketaz legearen tramitazio berria onartu zuten. EAJk, EAK eta IU-EBk tramitazioaren alde bozkatu zuten; PPK eta PSE-EEK aurka; eta SA abstenitu egin zen. Berriz ere Euskal Unibertsitatearen lege proposamena lantzen hasiko dira, beraz, baina baldintza batekin: ponentziak iazko urte amaieran hitzartutako testutik abiatu beharko dutela; alegia, SAren, PPren eta PSE-EEren zuzenketa partzialak ere biltzen dituen testutik.

Sindikatuak begi onez ikusi dute tramitazioa onartu izana eta oraingoan behin betiko legea egingo den itxaropenarekin daude. EILAS, ELA eta LAB sindikatuentzat legea ez da Euskal Herriak behar duena, hots, ez ditu beraiek nahi lituzketen puntu guztiak biltzen; baina ezer ez edukitzea baino hobea dela iritzen diote. Behintzat, irakasle kontratatuen egoera eta euskalduntze prozesua kudeatzeko aukera irekitzen duela diote.

Sakon erroituriko gizon -edo emakume- bat da bizitzaren eta artearen egi hilezkorretan sar daitekeena. Deserrotze kosmopolitak oso bakanetan erdiesten du baliozko lorpenik inongo eremutan.

Brunett James



Dereduaren aldeko elkarretratzea egin dute Iruñeko Patxi Larrainzar ikastetxeko kideek

Iruñeko D ereduko Patxi Larrainzar ikastetxeko kideek eta Sortzen-Ikasbatuaz elkarrekatzea egin zuten euskarazko ereduaren alde. Nafarroako Gobernu Eskola eta Lanbide Hezkuntzako zuzendari nagusi Fermin Villanueva Arrotxapea auzoko Cardenal Ilundain ikastetxera joan zen, eta egun hori aprobetxatu zuten aipatu elkarretratzea egiteko. Viilanuevak Cardenal Ilundain ikastetxe berria bisitatzen zuen bitartean, Patxi Larrainzar ikastetxekoek eta Sortzen-Ikasbatuazekoek euren zentroaren egoera salatu nahi izan zuten. Gelak beteta daudela eta eskola berria behar dela aldarrikatu zu-

ten. Baina Nafarroako Gobernuak bere eskaera ez duela aintzat hartzen adierazi zuten, "ez baitu ezer egiten D eredua- ren alde". Cardenal Ilundainen D eredua eskaintzen dute; hots, ingelesa eta gaztelania nahasten dituen.

Bestalde, elkarretratzea ez, baina bilkura egin zuten Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 12 ikastetxetako gaztetxoek Eusko Legebiltzarrean. 12 eta 16 urte bitarteko gazteek emakumeen aurkako indarkeria gaia eztabaidatu zuten ezohiko osoko bilkuran, Unicef elkarrearen ekimenari jarraiki.

Legebiltzarrera joan aurretik, emakumeen kontrako indarkeriaz gogoeta egiten aridu dira azken hilabeteetan. Atera duten ondorioetako bat zera izan da: eskolan landu beharreko gaia dela, leku egokia dela irizten baitute.

Erasotzaileei jarri beharreko "zigorren gainera legedia" izan zuten aztergai, baina ez ziren horretan soilik gelditu. Haratago joanez, lege osoa prestatu behar dela gaineratu zuten, genero indarkeria arazo publikotzat jo behar delarik, eta ez pribatutzat.

Horrelako gai interesgarri eta kezagarri baten inguruko iritzia eman eta irtenbideak proposatzeaz gain, lan hori guztia aurrera eramateko gaitasuna erakutsi zuten. Agian helduek baino errespetu eta ganora gehiago erakutsi zutela baieztatu daiteke.

Haurrei tratatu txarrak ematen dizkietela esanaz, Gasteizko haur eskola baten aurkako salaketa jarri du langile ohi batek. Langile ohiak adierazi duenez soinu-frogak ere baditu, ustez haurrei emandako tratatu txarrak jasotzen dituztenak.

Salaketa dela eta, Gasteizko Adingabeen Fiskaltza haur eskola aztertzen ari da.

Zentroko zuzendaritzak publikoki ukatu egin du tratatu txarrak egon denik. Salaketa "oinarririk gabeko akusazio faltsu, sinestezin eta iraingarritzat" jo du zuzendaritzak, eta gaineratu du salaketa hori lan gatazkak eduki zituztelako jarri duela langile ohi horrek. Langile horren eta eskolaren arteko auzia lehendik abokatuen esku omen dago. Eskolak dio, ustezko tratatu txarrei buruzko zurrumurrueen berri jakin bezain pronto, haurren gurasoekin zenbait bilera egin zituztela. Eskertu egin die gurasoei, "presioak eta tentsioak" jasanda ere eskolarekiko izan duten "konfiantza". Zuzendaritzak ziurtatu du Justiziarekin "elkarlanean" ariko dela, "berriro normaltasun osoa lortu nahian". Haur eskolak 9 urte daramatza lanean, eta zentroaren izena isilean mantentzeko eskatu du zuzendaritzak, "haurren eskubideak zaindu ahal izateko". Zentro pribatua da, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza jasotzen duena. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak kasuari buruzko txostena egin du, eta ondorioen berri gutxi barru emango duela esana du.

0-3 urteko haurrak eta euren eskolak





Etxeko txikienen eskolatzea hizpide

Etxeko txikien heziketa eta zainketa, zainketa eta heziketa. Euskal Autonomia Erkidegoan etapa hori arautu duen behin-behineko dekretua ezagutzen da eta Nafarroan oraindik zain daude. Azkenaldian zeresan ugari ematen ari da eta iritzi askotarikoak sortu dira. Familiak, hezitzaileak, administrazioa, udalak, adituak... denek dute zerbait esateko. Gai zabala eta korapilatsua da, helduleku ugari dituen, ikuspegi eta interesen arabera gauzak era batera edo bestera ikusten baitira. Horixe bera islatzen ditute hurrengo orrietako iritziak. Denak bateratzen eta asetzen dago lana.

297/2002 dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoan zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituen.

Horrela dio hainbeste zeresan eman duen dekretuak. 0-3 urte bitarteko hezkuntza etapa arautu gabe zegoen, eta dekretu horrek arautu egin du, baina behin-behinerako. Esan nahi baita, bertan zehaztutako guztiak izatera iragankorra eta esperimentalta duela eta 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetara mugatuko dela. Gauzak horrela, 2004-2005 ikasturterako dekretu berria aterako da, behin-betikoa izango dena.

Urteetan zehar eztabaidatu den behin-behineko dekretua Eusko Jaurlaritzako lau Sailen artean egina da: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila, Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Saila.

Dekretuaren xedea da Seme-Alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Planean egindako aurreikuspenak betetzea. Plan horren helburu nagusia familia bizitzaren eta laneko bizitzaren arteko elkar ulertzea lortzea da.

Horrela bada, dekretuak EAEn 0-3 etapa antolatzeko irizpideak ezarri ditu: helburuak, kalitatearen baldintzak (hezkuntza proiektua, ratioak, hizkuntza trataera, ordutegia eta egutegia, hezitzaileak eta instalazioak), zentroen titulartasuna eta baimen prozedurak. Dekretuak lehen zegoena eta sortzen ari den berria bateratzea du xede, bientzat balio behar du. Zentzu horretan, dekretuarekin batera arau ugari ari dira garatzen.

Nafarroan, ordea, oraindik ez dute dekreturik egin eta horren zain daude. Lehen zirriborroa egina dago eta orain

bigarrena egin da. Itxura guztien arabera, maiatzerako dekretua egina egongo dela dirudi.

Iparraldean egoera bestelakoa da. Ez dago dekreturik eta Hezkuntza Ministeritzarentzat hezkuntza 3 urterekin hasten da. Adin horren azpitik dauden haurrak haurtzaindegietara edo zain-tzaileen etxetara eramaten dituzte, eta batez ere zerbitzu asistentzial bezala hartzen da, nahiz eta alderdi hezitzailean ere arreta jarri.

Edonola ere, orain arte 0-3 etapa arautu gabe egon arren, hainbat eskaintza existitzen dira egun:

- Udal haur eskolak: udalaren eskuetan daudenak EAEn, Nafarroan nahiz Iparraldean.

- Haur eskola pribatuak: instituzio publikoen eskuetan ez dauden 0-3ko zentroak izango lirakeke eta Euskal Herri osoan daude.

- Eskola pribatu kontzertatuak: ikastetxe kontzertatuak zabalduko gelek osatzen dute (La Salletarrek, ikastetxe...). Batzuetan 2-3 gelak izaten dira, eta beste batzuetan 0-3. Orain arte 0-3ko gutxi egon dira, baina dekretuaren ondoren gehiago ari dira zabalitzen. Iparraldean ez dago horrelakorik.

- Eskola publikoak: eskola publikoetan dauden 2-3 urteko gelek osatzen dute EAEn eta Nafarroan. Añorgako Amasorrain ikastola da 0-3 daukan bakarra, publikatu aurretik ere bazeukalako. Gainontzekoek 2-3 soilik dute, Gasteizkoek izan ezik. Hor udal haur eskolek eskaintzen dute etapa hori, eta ikastetxe publikoek ez.

- Etxe pribatuak: zain-tzaileak: haur talde txiki bat etxean jaso eta zaintzen duten gizon-emakumeak dira. Badaute prestakuntza eta titulua eta euren lanari jarraipena egiten zaio. Horrelako kasuak Iparraldean topa ditzakegu.



EAEko dekretuaren gaineko iritziak

Jakina denez, EAEn 0-3 urte bitarteko haurren haur eskolak arautzeko dekretuaren ezarpena ez da oharkabea pasa eta kirtika ugari jaso ditu. Ez da asetetzen ari sortu ziren espektatibak; ez arlo sindikaletik, ez Haur Eskolen Koordinakundearen aldetik, ez gurasoen al-

detik... guztien aldetik entzun dira kezak. Punturik kritikatuena hauek izan dira:

- Ikuspegi hezitzailea/asistentziala
- 0-3 zikloaren puskatzea
- Publikoaren eta pribatuaren arteko desoreka

- Orduetgia
- Finantziarioa eta diru laguntzak
- Kuotak
- Eskola maparik eza

Haur Eskolen Koordinakundearen eta Adarra Pedagogi Taldearen iritziak jaso ditugu jarraian.

Betiko haur eskolen iritzia jasotzen

Gipuzkoako Haur Eskolen Koordinakunde

Gaur egungo egoeran pentsatzen hasita, lehen lehenengo sententzia **frustrazioarena** da. 0-3ko Dekretua badugu, baina zertan geratu da hainbeste amestu dugun Haur Hezkuntza, Haur Hezkuntzarik izango badugu behintzat?

Inondik ere ez da eraman gaia Haur Eskolen Koordinakundeak (beste kolektibo askorekin batera) azken urte luze hauetan jorratutako ildotik. Pauso batzuk eman dira, eta zilegi da horiek aipatzea, gure kezka eta minak azaltzen hasi aurretik. Dekretuaren ondorioz:

1) 0-3ko ardura legez definituagoa geratu da, lehen airean baitzegoen.

2) Finantziario handiagoa izango dugu eta, ondorioz, biziraupena ziurtatua.

3) Sare publikora pasa ahal izateko zirikaria ireki zaie pribatu modura funtzionatzen zuten haur eskola historikoei.

4) 0-3ko plaza gehiago izango diren horretan, gizarteari eskainitako zerbitzua areagotu egingo da.

Baina, hori horrela bada ere, hasieran aipatutako frustrazio sententzia handiegia da haur eskolen gaitik tiraka ibili garenontzat.

Eusko Jaurlaritzak PPren Kalitate Legea (LOCE) aurreikusi du egin duen Dekretuan eta horren aldeko apustua egin ere bai, argi eta garbi. Tamalgarria

da, kontuan hartzen badugu gainera, gure Erkidegoan genuen egoerak (eskolatze maila altuena duen erkidegoa delako) gauza txukun bat egitea errazten zuela. Jaurlaritzak aukera hori galtzen utzi du kontzienteki eta 0-3ko Dekretua era esperimentalean ezarri badu ere, beldur gara hemendik aurrera ematen joango diren pausok egoera okertu besterik ez ote duten egingo. Penaz diogu, baina gure sententzia da behingoz gauzak txukun egiteko genuen aukera hori, betiko galdu dugula. Eta hemen gizartea izan da galtzaile, baina, inor baino gehiago, haurra.

Dekretua ez da joan hasieran abiatu zen bidetik, haurra helburu hartuta eta hezkuntza haurraren eskubide unibertsala dela aintzat hartuta. Aitzitik, gure Dekretuan beste interes batzuk nabarmendu dira: ekonomia, jaiotze tasa, landa garapen politika..., eta hori guztia suspertzeko, haurren existentziak sortzen duen arazoari irtenbidea

eman beharrean izan dira. Nola ulertu bestela, adibidez, landa eremuetako haurren eta gainerako haurren artean egin dituzten bereizketak? Zer dira haiek, bigarren mailakoak? Zer dela eta haien kalifikazio gutxi hezitzaileak eta definizio eskaseko zentroak?

Kalitatea. Zenbat aldiz entzun diogu gure Hezkuntza sailburuari kalitatezko haur eskolak zabalduko dituztela? Kalitateaz hitz egiten hasteko oinarritzko baldintza bat bete beharra dago, Jaurlaritzak bermatuko ez duena: irakasle/ikaslak kopuru **eramangarria** ezartzea. Eramangarria haurrak hezitzaile iristeko. Hori bezain sinplea da.

Guk urte askotako esperientziatik diogu Jaurlaritzak ezarri dituen ratioekin ezinezkoa dela heziketa lan bat egitea, ezin izango dugulako horretarako girorik sortu hainbeste haurrekin. Europako nazio aurreratuen ereduari begiratu diotela diote, hori lau haizeetara ozenki zabalduz. Datuak alderatuko ditugu, eta irakurleak epi dezala.

ADIN TARTEA	JAURLARITZAKO DEKRETUAN	HAUR ESKOLEN KOORDINAKUNDEAK	EUROPAN
0-1	8	5	4
1-2	13	8	6
2-3	18	12	8

Irakasle bezala eskarmenturik ez baldin baduzu kopuru horiek balioesteko, jar zaitez guraso papelean, ea balio dizun hilabetetako haur bakar baten erreferentziak, 8 haur txikiren aurrean irakasle batek egin dezakeena balioesteko, adibidez.



0-3 urteko haurrak eta euren eskolak

G

Gizarteari iruzurra. Hezkuntza sailburuak zabaldu duen beste ideia honakoa da: Jaurilaritzak irekiko dituen haur eskolek familia eta lana uztartzea izan-godutela helburu. Horretarako, badirudi edozein eskaintzak balio izango duela: haur eskolek gurasoen beharrak asetuko dituzte 12 orduz irekita egonez, gauez ere irekiko dira behar izanez gero, ordutegi malgua izango dute, eskaintza mota ugari egongo dira... Agerraldi bakoitzean gauza berri eta utopikoagoak entzuten dizkiogu, gaur egungo egoera ekonomikoan bete ezin izango direnak. Lau sosekin egin nahi dutena txapuza hutsa da, eta hori aurretik badakite. Gainera, zer irtenbide emango diote eskola/ikastoletako 2 urteko haurren gurasoek duten ordutegi zabalaren premiari? Eta 3, 4 eta 5 urtekoen gurasoei? Horiei ere zergatik ez? Edo haur horiek oso autonomoak dira helduaren laguntzarik gabe moldatzeko?

Dekretua **inposaketa** bat izan da. 0-3 urte bitarteko heziketan eskarmen-tua genuenoi ez zaigu entzun, eta urte-en poderioz mamitu eta egokizela (baita Europar ere) frogatuta zegoen haur txikienezako gure heziketa eredua ez dajaso ere egin.

Dekretu honek **30 urte atzera** garamatza. Aspaldian gaudituta zegoen asistentzia kontzeptua da berriz ere indarrean jarri dutena eta hori atzerapauso penagarria izan da; norbaitek esango lukeen bezala, *inboluzio* hutsa.

Dekretu honek **0-3 zikloa puskatu** du eta **pedagogia aldetik eredu desegokia** bultzatu. Eskoletan 2 urteko gelak soilik onartzeak, pedagogia arloan eredu desegokitara garamatza. 2 urteko geletan eredu eskolarra da ezartzen dena (kolektibo askok desegokitzen dutena, besteak beste, haurren erritmoak errespetatzeko zailtasun

handia ekartzen duelako), eta 0-2ko tartea erabat eskas geratzen da heziketaren proiektua gutxieneko batzuekin biribiltzeko.

Ez gaude, ez, pozik Dekretu honekin. *Guraso* gehiegi (eta askotariko interesak) ditu, hainbeste Sailen artean ardurak banatuta, eta gainera, udalen erabakien baitan uzten du maila handi

batean etorkizuna. Horrek ahuldu egin du abian jarri den proiektua. Proiektua *forceps*ekin jaino da eta denbora asko baino lehen larrialdietako zainketa medikua beharko du itxuratzeko. Etorkizuna hobetuko ote zaigu? Orain dute aukera atera behar duten dekretu berriarekin gauzak zuzentzen hasteko. Ez al da okerrago geratuko, baldinbaitere!

Adarra Pedagogia Taldearen iritzia

Eusko Jaurilaritzak haur eskolak arautzeko behin-behineko dekretua argitaratu zuen 2002. urtean. Bertan bi urteko epean, eta ebaluazio baten ondoren, erabaki berriak hartuko zirela zehazten zen. Dagoeneko 2004. urtean gaude eta araudi hori honako arrazoi hauengatik errefusatu dugula adierazi nahi dugu:

- Dekretuak eskola pribatuetan plazarik sortzea laguntzen du eta zentro publikoetan lehen zikloa eskaintzea eragozten du.

- Epe laburrean dagoeneko funtzionatzen duten haur eskoletatik abiatuta, eskaintza areagotzea bermatuko duen eranskin ekonomikorik ez du dekretuak.

- Dekretuak ez du integrazio sozialik bultzatzen, ez baitu laguntzarik gabeko talde soziokulturalen aldeko neurririk ezartzen.

Egungo araudia onartezin bihurtzen duten arrazoiak salatzeaz gain, Haur Hezkuntza hezkuntza sistemako lehen



maila izan dadin nahi bada, zuzendu behar diren beste alderdi batzuk ere badaude:

1. Dekretu horrek ez du ez baliabide-erako ez administrazioen arteko koordinazioarako neurri zehatzik ezartzen lehen zikloko plazen eskaintza nahikoa izan dadin. Ez du egoeraren diagnostikorik aurkezten epe labur edo ertainera neurriak hartzeko. Ez du zehazten proposatzen duen titularitate publikoko haur eskolen eredia nolakoa izango den. Ez du 0-3ren eskaintzaren hedadura aipatu ere egiten. Ez du argitzen familiek zein instituziotara jo behar duten. Eta urteetan zehar LOGSEren baldintzak bete dituzten zentroen jarraipenik ez du bermatzen.

2. Dekretuak zentro pribatuei baino ez die egiten mesederik. Eskaintza pribatuan lehen zikloa hedatzeko laguntzak bultzatzen ditu, eta aldi berean, eskola publikoari gizartearen beharretara egokitzea eragozten dio. Eskaintza pribatuari legalki bere eskaintza lehen hila-beteetatik Batxilergora arte luzatzeko aukera ematen dio, eta Hezkuntza Sailaren menpe dauden zentroetan 3 urtez azpiko haurrei erantzuteko aukera kentzen du.

3. Dekretuak ez du egungo eskaintzaren aniztasuna (publikoak, pribatuak, kooperatibak...) aintzat hartzen, ez eta aurreikusten duen eskaintzaren maparik aurkezten ere. 3 urtez azpiko seme-alaben familiek ez dakite nora jo, eta zentro publiko bat hautatzen baldin badute, Haur Hezkuntzako 2. zikloan beste zentro batean egin beharko dute berriro ere matrikula. Egun, Lehen Hezkuntzako haurren erdia baino gutxiago joaten da zentro publikoetara, eta pribatuarekiko diferentzia hori handitu egiten da Bigarren Hezkuntzan. Zergatik ez egin mapa bat haur eskolak Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin lotzeko, horiek

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeekin lotzen diren bezala?

4. Dekretuak 2. mailako zentroak ezartzen ditu herri txikietan. Nekazari guneeetarako Zerbitzu Asistentzialak eta Hezkuntza Zerbitzuak aipatzen dira 3 urtez beherako haurrentzat eta Nekazaritza eta Arrantza Sailaren txosten baten baitan daude. Nekazari herriak ez diren 4.000 biztanle baino gutxiagoko herri ugari daude, eta nekazari gunekoak izan arren, 3 urtez beherako haurrentzako kalitatezko eskaintza bakarrak haur eskolen kalitate parametroek aurreikusten dutena izan beharko luke. 3 urtez azpiko haur guztiek ez dute eskolan kokatutako hezkuntza eskaintzarik behar, baina 0-3 eskaintza publikorik ez dagoen herri txikietan eskolak egokitu behar du behar sozialei erantzuteko.

5. Dekretuak ez du integrazio sozialik bultzatzen. Euskal Autonomia Erkidegoan behar eta eskaera anitzeko familia eredu askotarikoak daude. Eskaintza publikoak zabala (derrigorrezkoa izan gabe), malgua (asistentziala izan gabe, baldin eta asistentziala izatea hezkuntza proiekturik ez edukitzea ulertzen bada) eta desberdintasun sozialak gainditzeko modukoa izan beharko luke. Badirudi dekretu honekin ez dela egingo edozein egoera ekonomikotik eskuragarri izango den antzeko eskaintza eskola publikoan eta pribatuan. Hezkuntza Sailak gizarteko eta egungo familietako beharrei erantzuteko erantzukizuna dauka eta baita eskaerarik egiten ez dutenen eta antolatze gaitasunik ez dutenen beharrei erantzuteko ere.

6. Dekretua anbigua da 2 urteko gellen auzian. Egun ia 300 zentrok dituzte bi urteko gelak. Horrenbestez, dekretu honek neurri ekonomikoei buruzko gehigarri bat eduki beharko luke. Era berean, eskaintza publikoa indartu egiten dela ziurtatu beharko luke, gauzatze epe ze-

hatzak ezarri beharko lituzke, eta ziklo osoa arautu bitartean 2 urteko neska-mutilak ongi zainduak egongo lirатеkeela bermatu beharko luke.

7. Dekretua koherentea da LOCEren eta 3 urtez azpiko haurrentzako zerbitzuen izaera asistentziala indartzen du. Eskola eskaintza guztiak familien eta gizartearen beharretara egokitu beharko luke, baina betiere hezkuntza proiektu batetik abiatuta. Oinarri teorikoak, esku-hartzearen helburuak, kriterio metodologikoak, irakasleen zeregina..., horiek guztiak hezkuntza zentroak eta beste zentroak bereizten dituzten ezaugarriak dira.

8. Dekretuak ez du bultzatzen bere ingurunean egokitutako haur eskolarik. Ez da kudeaketa eredurik proposatzen eta ez dira aipatu ere egiten funtzionamendu planak eta zentroek beren proiektuak aurrera eramateko behar duten autonomia. Eta noski, erabat baztertzeko dira familien parte-hartzea, kide anitzeko zuzendaritza, beste zerbitzu sozio-hezitzaileekin, kulturekin eta osasunekoekin batera aritzea eta abar.

9. Dekretuak ez ditu 1.004 dekretuak ezartzen zituen gutxieneko baldintzak gainditzeko, eta premiazkoa da neska-mutil bakoitzeko metroen baldintzak aldatzea. Adin horietan espazioa baliabide garrantzitsuetakoa da, horren baitan baitago lasaitasuna sortzea, ekintzak egiteko aukera, txokoak sortzea eta aniztasunari erantzuteko bitartekoak antolatzea. Hezitzaile/ikasle ratioei dagokienez, beharrezkoa da aurreko dokumentuetara itzultzea. Dokumentu horiek 0-3an esperientzia duten profesionalen onartu zituzten eta Europako parametroei loturik daude; hau da, 5, 8 eta 12 neska-mutil 0, 1 eta 2 urtekoen taldeetan, hurrenez hurren. Adin desberdinetako haurrak elkartu behar diren zentroetan zenbaki horiek berrikusi egingo dira edo hezitzaile gehiago jartzeko aukera aztertuko da.

10. Dekretuak ez du hizkuntza ereduaren eskema zorrotza gainditzeko. Eskola bakoitzeko hizkuntza proiektuak egiteko garaian, kontuan hartu behar da derrigorrezko hezkuntza bukatzerako elebitasuna lortu behar dela. Horregatik, ereduak ezin dute mugiezinak izan; inguruneari, familia bakoitzari eta haur bakoitzari egokitu behar zaizkie.





0-3 urteko haurrak eta euren eskolak

G

Abel ARIZNABARRETA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordea

Abel Ariznabarreta Hezkuntza sailburuordea buru belarri dabil 0-3 dekretuaren ezarpena bideratzen ere. Dekretuaren inguruan egin eta entzun diren hainbat kritiken inguruko iritzia eskatu diogu.

Dekretuak sare publikoaren eta pribatuaren arteko desoreka bultzatzen duela salatu dute gurasoek, sare publikoko irakasleek eta abarrek. Zer diozu horri buruz?

Lehenengo eta behin, jendeak esaten duenean titulartasun pribatuko 0-2ko eta 0-3ko eskaintza zabaltzen ari dela, ez da zuzena. Zabaltzen baino gehiago baimentzen ari gara. Orain arte titulartasun pribatuko zentroek ez zuten inolako baimenik behar irekitzeko, eta orain, dekretuak dio baimena beharrezkoa dutela finantzazioa lortzeko. Beraz, orain baimen horiek lortzen ari dira, baina ez dira zentro berriak, ez dira plaza berriak, haur horiek lehen ere hor zeuden.

Orain sortzen ari garen eskaintza berria titulartasun publikokoa da. Partzuergoaren bitartez urtean 1.000 plaza berri sortuko dira eta horrekin desoreka apurtzen ari gara.

Gainera, gizarte honetan badago beste eztabaida bat ere. Zer ulertzen dugu publiko erta pribatu kontzeptuekin? Ez da titulartasuna soilik, eta are gutxiagore errealitatean, hezkuntza ez publikoa eta ez pribatua ez den izugarritzko esperientzia daukagunean. Gizarte mailan antolatzeko eta sare propio bat antolatzeko gai izan gara eta eskaintza eta zerbitzu publiko izugarria izan da. Gainera, alderdi askotan aitzindaria izan da, ez hizkuntzaren aldetik soilik, baita pedagogian ere. Orduan, publiko-pribatu kontzeptu hertsia hori gaintu egin behar dugu. Europan bueltatxo bat eman eta ikusiko dugu publikoa deitzen den guztia ez dela administrazioarena.

Abel Ariznabarreta: *“Hezitzailea eta asistentziala, biak eskatzen ditu gizarteak”*

0-3 etapa izan arren, azkenean ez al da bitan banatu eta 0-2 eta 2-3 gelditu?

LOGSE bera egiterakoan izugarritzko eztabaidak egon ziren eta 0-3/3-6 erabakia zorizkoa izan zen. Zergatik ez egin 0-2, 2-4 eta 4-6? 0-3 ez da berez haurraren garapenean etapa finko bat, hori argi dago. Askoz ere etapa txikiagoek funtzionatzen dute. LOGSE egiterakoan helburua zen 3 urtekoen eskolatzeko orokorra lortzea, eta horregatik ipini zen banaketa hori. Badirudi behin erabaki bat hartu eta ezin dela aldatu. Ez, ez. Hori aukeratako bat da, baina mementoan balioetsi behar da.

Orduan, guk errealitate bat daukagu: 2-3 eskolan daukagu eta ongi finkatuta. Prozesua modu nahiko naturalean egin da, ez da batera traumatikoa izan. Onartua dago eta balorazioa ere positiboa da. Beraz, pena litzateke orain hori desmuntatzen hastea.

Dekretuak ratioak aldatu ditu eta aurreko haur eskoletakoak baino okerragoak dira. Ez al da atzerapausoa?

Gauza bi esan behar dira. Bata, orain arte zegoena inork ez zuela kontrolatzen. Hori garbi gera dadila. Nork daki zer ratio zeuden? Administrazioak ez zuen kontrolatzen, eta hemendik aurrera bai.

Bigarrena 8-13 ratioa gehienezkoa da, baina errealitatean gutxiagorekin ari dira zabaltzen. Unitate bakoitzeko 1,5ekin jokatzeko dugu kalkulu guztietarako. Horrek ez du esan nahi zortzi haurreko pertsona bakar bat egongo denik. Ordu-tegiak ez dira denentzat berdinak eta lineala; une batean haur bat egongo da, gero bi, gero hiru eta gero berriz bi.

Ratioena urtero-urtero negoziatzen da. Hau abiapuntua da; goazen balioes-tera.

0-3ko eskola mapa falta dela ere entzun da behin eta berriz.

Mapa badago eta dinamikoa da. Lehenengo zegoenaren gaineko mapa erreal egin genuen, inork ez baitzuen kontrolatzen zer zegoen. Horren arabera, baremazio bat egin genuen eta 1etik 6rako lehen-tasunak jarri ditugu. Hori mapa bat da eta urtero-urtero eguneratuko dugu.

Partzuergoko kuotak garestiak omen dira.

Garestia da hezkuntzatik begiratuta, baina orokorrean gizartearen beste zerbitzu publiko batzuk ordaintzen ditugu. Dena dela, lehen tarte garestia da (180 euro), baina besteak ez hainbeste: 150 eta 135 euro. Azken batean, helburu orokorra familia eta lana bateratzea da eta lanean dabilzanentzat da. Beraz, suposatzen dasarrera batzuk badituztela. Hala ere, lehenengo sartu direnei garestitxo aterako zaie, baina beste arlo batzuetan konpentsatuko dugu. Joera jaiste izango da.

0-3, hezitzailea ala asistentziala?

Hori baliosteko beti 2-3 tarte hartzen dugu eta hori eskolan dago, 5 ordukoa da eta guztiz eskolarra. Eta gizarteak ez du hori eskatzen. 2-3ak ez die gizartearen beharrezane erantzuten. Leku batzuetan eskolan Partzuergoak ematen dituen zerbitzuak ematea eskatu dute.

Bestalde, Partzuergoan, nahiz eta ordutegi malgua izan, beste batzuk finkoak izango dira, ez da inor aterako eta sartuko eta ordu horietan hezkuntza proiektua gauzatuko da. Horrekin hezkuntza alderdia bermatu egiten da.

Haurreskolak Partzuergoaren eskaintza berria

Haurreskolak Partzuergoa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 37 udalek osatu duten partzuergoa da. Herri horietan 0 eta 2 urte bitarteko haurrentzako haur eskolak sortu dituzte.

Herri gehienak txikiak dira, lenendik adin horietako haurrentzat eskaintzarik ez zuten lekuak. Dena dela, hemendik aurrera udal gehiago ere sartuko dira. Izan ere, urtero 1.000 plaza berri sortzeko asmoa agertu du Partzuergoak. Maite Larrañaga Haurreskolak Partzuergoko gerenteak hala adierazi digu: *“Hasieran 31 herri sartu ziren, baina une honetan 37 dira, eta horien artean Bilbo eta Gasteiz. Horietan ere jadanik*

martxan ditugu haur eskola berriak”.

Finantziazioari dagokionez, udalek eraikina jarri dute eta garbitasuna eta zainketa ere beraien ardurapean egonen da. Gainontzekoa Partzuergoaren eskuetan dago.

Partzuergoko kuota guztiak berdinak dira: haurra 4-8 ordu bitartean egoten bada 180 euro, eta 4 ordu baino gutxiago egoten bada 135 euro. Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak errentaren arabera bekak emateko deialdia egin berri du. Udal haur eskoletan, aldiz, adin tarte bakoitzerako kuota desberdinak izan ohi dituzte.

Mementoz orain arteko udal haur eskolak ez dira Partzuergoan sartuko. Izan ere, helburua plaza berriak sortzea da, eskaintza handitzea. Dena dela,

udal haur eskolei Partzuergoan sartzeko aukera irekita utzi da. Hala ere, ez da hain erraza izango, hezitzaileen lan kontratuak, baldintzak, titulazioak eta abar desberdinak baitira.

Edonola ere, herritarrek eta udal bakoitzak erabaki beharko du hori, abantailak eta desabantailak aztertuz. Finantziazio aldetik, esate baterako, desberdintasun handirik ez da egongo. Hots, udal entzatzat ez da merkeagoa izango Partzuergoan sartzea. Langileen kasuan, Haurreskolak partzuergoan dauden udalek ez dute langilerik kontratu beharko, Partzuergoak egingo baitu hori. Adibidez, Gasteizen irekiko diren haur eskola berriak Partzuergoaren bitartez irekiko dira eta langileak ez dira beste haur eskoletan bezala udaleko langileak izango.

Zenbat buru hainbat aburu

Haurreskolak Partzuergoaren eragina udalek, gurasoek, haurrek... nabaritu dute, eta denetariko iritziak daude.

EUDEL eskal udalen elkarteak eta Hezkuntza Sailak protokolo bat sinatu zuten 2003ko azaroaren 21 ean bien arteko lankidetzaren bideratzeko haur eskolen kudeaketari eta 0-3 urteko hezkuntza eta laguntza zerbitzuari begira. Hori dela eta, EUDELek gertutik jarraitu du bai dekretuaren ezarpena eta bai Partzuergoaren eraketa.

EUDELen ustez, dekretua dela eta, lehendik zeuden haur eskolek lankidetzaren hitzarmenak egin dituzte Hezkuntza Sailarekin, eta ondorioz finantza egonkortasuna lortu dute. Zenbait kasutan, jasotzen zuten diru laguntza %100ean igo dela aipatzen du, eta kasu bakanen batean %700.

Beste hainbat gauza ere hobetu direla aditzera eman du EUDELek. Esate baterako, Partzuergoa sortu aurretik

zeuden haur eskolei lau urteko epean Partzuergoan sartzeko aukera zabaldu zaie. Haur eskolen eskaintza publikoa ere igo egin da. Eta guztiaren ondorioz, haur eskolen eskaintza publikoaren eredia ezarri da.

Haurreskolak Partzuergoan sartu den udaletako bat da Ispaster. 630 biztanle inguruko Bizkaiko herri honetan ireki den haur eskolara 6 haur joaten dira. Jesus Lekerikabeaskoa alkateak haur eskola irekitzeko arrazoi nagusia herriko eskolaren biziraupena dela dio. *“Herriko eskola ixteko arriskua ikusten genuen haur gutxi zeudelako. Gainera, inguruko herrietan haur eskolak badaudenez, haurrak hara eramaten badituzte, gero hango eskoletan gelditzeko arriskua dago. Beraz, horren aurrean, haur eskola ezartzea zen gure eskola irekita mantentzeko aukera bakarra”*.

Horrela, Partzuergoan sartzea era-

baki zuten, bestela udalak bere kabuz ezin baitzuten aurre egin gastu guztiei. Irailerako egoitza prest zeukan udalak, baina Partzuergoa oraindik abian jarri gabe zegoenez, udalak eta guraso eskolak beren ardurapena ireki zuten. Irailetik abendura arte horrela egon ziren eta orduan hasi ziren Partzuergoko langileak.

Gurasoak pozik daude zerbitzuarekin, baina ez ordaindu behar duten kuotarekin, oso altua delako eta bekak ez direla nahikoak. *“Adibidez, guraso biak eta seme edo alaba bateko familiak, hau da, hiru kideko familiak, diru laguntza jasotzeko ez du 17.000 euro baino gehiagoko sarrerarik eduki behar urtean. Guraso biek lan egiten badute, gehieneko hori erraz pasatzen da. Horregatik, Ispasterren ez dakigu inork diru laguntzarik jasoko duen. Izenez publikoa da haur eskola, baina ordaindu behar duguna ikaragarria*

0-3 urteko haurrak eta euren eskolak

da” dio Ainhoa Garate gurasoak. “Zenbait herritan jendea atzera bota da”. Ispasterren, ordea, ez, baina alkateak dioenez, “aldameneko herrian merkeago diren haur eskoletara joateko arriskua dago, eta beraz, hasierako arazora itzultzen gara”.

0-3 etapa izan arren, 2 urteko haurren kasuan zer gertatzen den ere aipatu digu. “Eskola publikoa dagoen herritan 2 urteko haurrak hara bidertzen dira eta haur eskolek 0-2 urtekoentzako zerbitzua baino ez dute eskaintzen. Eskolako eta haur eskolako ordutegia eta baldintzak desberdinak dira eta gurasook nahiago dugu haur eskola. Baina gurasoon iritzia ez da aintzat hartzen; gurekin ez dute ezertarako kontaktzen”.

Donostiako Ategorritxo haur eskola irabazi asmorik gabeko elkarte batek jarri zuen abian orain dela 30 urte inguru. Urte hauetan guztietan diru laguntzak jaso izan ditu, baina kostata egin diote aurre. “Donostian bost haur eskola gaude egoera honetan eta orain Haurreskolak Partzuergoan sartzeko asmotan gabilta. Guk hainbat baldintza jarri ditugu. Udalak onartu ditu eta orain ikusi egin beharko da Partzuergoak zer dioen”.

Partzuergoan sartuz gero, langileen egoera hobetu egingo dela diote. “Pribatu bezala ezin dugu gelditu ez dugulako inolako babesik. Orain diru laguntzak jasotzen ditugu, baina itota gaude, egoera larrian. Lan baldintzak ere hobetu egingo zaizkigu eta hobera-ko izango dela pentsatzen dugu”.

Kuoten aldetik, ez da alde handirik egongo, orain 198 euro ordaintzen baitute janaria barne. “Partzuergoko haur eskoletan 190 eurokoa jarri dute, eta hori ez da eskaintza publikoa. Zentzu horretan, gai asko daude hitz egiteko eta eztabaidatzeko”.

Hernaniko haur eskolaren ardura udalak dauka, hots, udal haur eskola da. Dekretuaren eraginez hainbat gai eztabaidatzen eta planteatzen ari dira, eta horretarako udala haur eskolako arduradunekin, herriko beste ikastetxeetako zuzendariekin eta gurasoekin bilitzen da. Txema Mercado zinegotziak

azaldu digunez, Partzuergoan sartzeko aukera irekita dago, “baina hori denon artean aztertu eta eztabaidatu beharko dugu”.

Zarautzen dagoeneko udalak Partzuergoan sartzeko urratsak eman ditu. Ondorioz, hemendik aurrera udala eraikinaren mantenuaz soilik arduratuko da eta langileak, kudeaketa eta abar Partzuergoaren esku geldituko dira. Horrez gain, udal haur eskolaren eskaintza ere aldatu egingo da: orain arte 0-3 urteko haurrak egoten ziren, eta datorren irailetik aurrera 0-2 urtekoak soilik egongo dira; 2 urtekoek herriko ikastetxetara jo beharko dute. Hala adostu dute udalak eta herriko eskolek, baina baldintza batekin: eskola bakoitzean zerbitzu asistentzialeko gela bat irekitzea. Patxi Coira haur eskolako langile eta udaleko Ezker Batuko zinegotziari gaizki iruditzen zaio 0-3 etapa puskatzea eta orain arte ondo funtzionatzen zuen haur eskolaren eredia ezabatzea. “Irtenbiderik onena ikastetxe bakoitzak 0-3 osotasunean edukitzea eta haur eskolaren lehengo eredia ikastetxe publikoarekin batera mantentzea”.

izango litzateke; eta ratioak mantentzea”.

Gasteizko egoera desberdina da. Hango udal haur eskolek orain arte bezala udalaren ardurapean jarraituko dute, baina sortzen diren berriak Partzuergoaren barruan sortuko dira. Zuriñe Sanz Lopez de Heredia EILAS sindikatuko kidearen iritziz “horrekin udal haur eskolen sarea geldiarazi egingo da, horrek dituen ondorioekin”. Izan ere, hemendik aurrera sare publikoko haur eskoletan hiru aukera egongo dira: udaleko 17 haur eskolak, Hezkuntza Ordezkaritzak ikastetxe batzuetan ireki dituen 2 urteko haurren 7 gela, eta Partzuergoak 0-2 urtekoentzat irekiko dituen eskola edo gelak. “Zalantza asko sortzen zaizkigu hiru ereduak elkarrekin nola biziko diren pentsatzen jartzean. Izan ere, desberdinak dira matrikulaziorako eta baremaziorako irizpideak, kuotak eta ratioak, hezitzaileen lan baldintzak, eskoletako egutegi eta ordutegiak, zerbitzuak (jantokiak...)... Arazoak sortuko dira, zailtzarrik gabe”.



Nafarroan gauzak zehazteke daude

Egoera legala

Une honetan Nafarroan legalki hutsune bat dago 0-3 urteko haurrentzako zentroyen araudiari dagokionez. Badakigu Dekretu Foral bat prestatzen ari direla Nafarroako 0-3 urteko zentro bartzuen egoera arautzeko eta 2004ko maiatzean argitaratzea aurreikusten dela. Era berean, badakigu Hezkuntza Departamentua parte hartzen ari dela, baina zentro horiei Ongizate Sozialeko Departamentuak emango die baimen administratiboa.

Bien bitartean, 2001eko abuztuaren 2ko Ongizate Sozialeko Nafarroako Institutuko Gerente Zuzendariaren Ebazpena dago. Bertan zenbait baldintza zehazten dira udalek 0-3 zentroak irekitzeko hitzarmenak egin ditzaten.

Ebazpen horri bi kritika egiten dizkiogu:

a) Haur eskola publikoetako haur baten urteko kostua 8.000 euro ingurukoa da batez beste. Nafarroako Gobernuak, zerbitzua merketzeko asmoz, 4.500 euroko kostua ezarri du. Gastu horren %42 gobernuak finantzatzen du, %33 familiek eta %25 udalek. Udalen bideragarritasun eza eta eskaera sozial altua ikusirik, udalak zentro horien kudeaketa kanpoko enpresa pribatuen eskuetan uztera behartuta ikusten dira.

b) Hezitzaileen titulazioei dagokionez, aukera anitz irekitzen dira, etazentzabaitetan titulurik gabe eta bi urteko esperientziarekin soilik lan egitea onartzen da. Modu berean, ez ditu zehazten eraikinen baldintza egokiak (adibidez, zentroyei ez zaie barruko patiorik eskatzen). Ratioak, berriz, honakoak dira: urtebete baino gutxiagoko taldean 8 haur; 1-2 urteetan 12 haur; eta 2-3 urteetan 16 haur. Ebazpen honetan ez dira aipatzen ez langileen ordezkapenak ez prestakuntzarako lan ordurik kanpoko denbora.

Badakigu zenbait alderdi politikok esperantza gehiago pizten duten pro-

posamenak egin dituztela, baina UPN-CDNren gehiengo absolutuak dena geldiarazten du.

Nafarroako Herriaren Babeslea 3 urtez azpiko haurren eskolatzearen baldintzei buruzko txosten bat egiten ari da. Eta noski, baldintza horiek ez dute bat egiten Gobernuak pentsatuta dituenekin.

0-3 heziketa zikloaren plataforma Nafarroan

Nafarroako Gobernua 0-3 zikloan egiten ari den ekintzek kezkatuta, adostasun eta babes handiko plataforma bat eratu dugu, haurrek jaiotzen diren unetik bertatik hezkuntzarako duten eskubidea (eta ez asistentziala) defendatzeko, beste behin ere. Oso kezkatuta gaude, eta Nafar Gobernuaren jokaerasalatu nahi dugu publikoki, zeinak oraindik ez duen arautu hezkuntza ziklo hori.

Plataforma osatzen dugunak hauek gara: Infancia aldizkariko erredakzio kontseilua; Atarrabiako, Antsoaingo eta Barañaingo udal haur eskolak, Iruñeko udal haur eskoletako eta Nafarroako Gobernuko haur eskoletako langileak; 0-3ko beste zentroetako langileak eta gurasoak; NUPeko Giza eta Gizarte Zientzietako Fakultateko Dekanotza eta Psikologia eta Pedagogiako Departamentua; Herriko Guraso Elkarteak; Sortzen-Ikasbatuak; eta CCOO, ELA, LAB, STEE-EILAS eta UGT sindikatuak.

Memento honetan Nafarroan 0-3 zikloak duen egoerari buruzko txosten kritiko bat egiten ari gara. Haur txikien hezkuntza eskubideari buruzko kontzientziazio soziala bultzatzeko egun bat ere antolatzen ari gara.

Honako hauek dira egiten ditugun eskariak:

1. Neska-mutil guztiek dute, jaiotzetik, hezkuntzarako eskubidea.
2. Hezkuntza Departamentuak Haur Hezkuntzako 0-3 lehen zikloa le-



ge
edo

dekretu foral baten bidez arautzea nahi dugu, hezkuntza etapa horren ezaugarrietara egokituz.

3. Hezkuntza Departamentuak beha ditzala -gehienez hiru urteko epean- 0-3 urteko haurrentzat irekitako zentro guztiak, gutxieneko baldintzak betetzen dituzten edo ez jakiteko.

4. Nafarroako Gobernuak eskaini eta finantza ditzala behar diren plaza kopuruak udalekin hitzarmenak egin (hauek enpresa pribatuekin kontratuak egin beharrik izan ez dezaten edota hitzarmen horrek udalak ekonomikoki ito ez ditzan, egun gertatzen den bezala).

5. Hezkuntza Departamentuak euskarazko zein gaztelaniazko eskaerei erantzun diezaiera; eta baita sor daitezkeen behar bereziei ere.

6. Nafarroako Gobernuak jarrai dezala Europako Batzordeko Haurtzararen Arreta Sareak zehaztutako ildo ezarritako kalitate helburuak bete daitezen (profesionalen prestakuntza, langileen lan baldintzak...).

Bukatzeko

Badakigu Nafarroako egungo egoera politikoa zaila dela. Edonola ere, gero eta kontzientzia sozial handiagodago haurren hezkuntza aukeren gainean. Manifestazioak, kontzentrazioak eta komunikabide sozialen inplikazioa biderkatzen ari dira.

Horrek guztiak balio dezala 0-3 Haur Hezkuntzaren benetako kalitatea hobetzeko.

Nolako da hezitzaileen formazioa?

Edozein irakasle postuetarako bezala, haur txikiekin lan egiteko ere presatu egin behar da, eta horretarako aukera bat baino gehiago dago gaur egun. Haurreskolak Partzuergoko hezitzaile lanpostuak betetzeko, titulazioari dagokionez, hiru hauetako bat izatea eskatu da: Haur Hezkuntzako irakaslea, Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria eta landa eremuetako Hezkuntza eta Asistentzia Zerbitzuetako-HAZ hezitzaileentzat zuzendutako homologazio ikastaroaren lehen zatia egina edukitzea.

Irakasle titulua

Irakasle Eskoletan eskuratzen den unibertsitate titulua da. Irakasle titulua-ren barruan espezialitate askotarikoak daude, eta bat Haur Hezkuntzako da. Donostiako Irakasle Eskolako irakasle Luis Mari Elizalderen ustez titulu hori dutenek ez dute formazio egokia 0-3 urteko haurrekin aritzeko. *“Ikasketak eta titulazioa ez daude etapa horretara behar hainbeste egokituta. Orokorrean ez dago sentsibilitaterik eta erantzunik 0-3arekiko. Edukiak eta programak 3-6 tarterako prestatuta daude. 0-3aren presentzia testimoniala da unibertsitatean gaur egun”*. Praktikak egiteko garaian ere, gehienek 3-6 urtekoekin egiten dituzte.

Zorionez, gauzak aldatzen hasita daude. Azken urteotan etapa horren inguruko ikerketa tesi pare bat egin da eta irakasle horiek 0-3 etapari buruzko edukiak sartzeko hasi dira euren programean. Era berean, dekretuaren eraginez eta administrazioak hartu duen finantziario bidearen ondorioz, sektore hori zabaltzen hasi da eta lanpostuak ere sortu dira. Hori ikusirik, formazio osagarri batekin hasteko asmoa dute Donostiako Irakasle Eskolan. Ikasketa plangintzen barruan, ikasleek %10 nahi dutena ikasteko bali dezakete. Bada, %10 hori, hautazko beste ikasgaiak eta praktikaldiak 0-3 etapari eskainiz gero, 400 orduko prestakuntza osatuko lukete, eta

Haur Hezkuntzako titulua jasotzeaz gain, formazio osagarri baten agiria eskuratu. *“Antolaketa goitik behera aldatu gabe, 20-25 lagun formazio horrekin irtetea lortuko genuke”*.

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Alex Barandiaran baikorrago agertzen zaigu. *“0-3 etapari arreta jartzeko zaila pentsatzen dut. Hala ere, egia da orain arte gutxi ikertu den adin tartearen dela. Horregatik, orain dela hiru urte Hazitegi proiektua jarri genuen martxan eta gauza interesgarriak egiten ari gara. Etapa hori ikeritzen ari gara eta ateratzen ditugun ondorioak prestakuntzan integratzen ditugu”*.

Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria

Titulu hori eskuratzeko Lanbide Heziketako ziklo bat ikasi behar da. Bertan gai teorikoak ikasteaz gain, praktikak egiten dira, bai 0-3 urteko haurrekin eta bai 3-6 urtekoekin. Baina lortzen duten tituluekin 0-3 urtekoekin soilik aritu litezke hezitzaile bezala; 3-6 urtekoekin laguntzaile bezala baino ez. Irungo Plaiiaundi lanbide eskolako Jon Zelaia irakasleak esan digunez, ez dago oso garbi 0-3 edo 3-6 tartearen den beraie dagokiena, baina orain arte 0-6 osoa hartu izan dute.

Homologazio ikastaroa

Landa eremuetako Hezkuntza eta Asistentzia Zerbitzuetako-HAZ hezitzaileentzat zuzendutako homologazio ikastaroa ez da ohiko formazio eskaintza bat, salbuespen bat baizik. Memento konkretu batean eta arazo zehatz bati ir-

tenbidea emateko sortu da. Herri txikietan lan egingo zuten pertsonak bermatu behar zirela ikusirik, eta bertako pertsona batzuk lan hori egiteko prest zeudela jakinik, Hezkuntza Sailak eta Mendikoi landa garapenerako erakundeak pertsona horiei formazio bat ematea erabaki zuen eta unibertsitateetara jo zuen. *“Guk erronkari bati ez esan genion”* dio Luis Mari Elizaldek. *“Ez zitzaigun planteamendua gustatu, denbora gutxi zegoelako. Guk gure ikasleek 2.000 orduekin konparatzen genituen formazioaren 250 orduak, eta nahiko lardatsa iruditzen zitzaigun. Baina tira, aurrera egin genuen premia sozial bat ikusi genuelako eta erantzun akademiko zintzo bat ematen ahalegindu gara”*. Ikastaroa bukatu ostena, emaitzarekin gustura gelditu dira.

Orain arteko profesionalen esperientzia

Nahiz eta orain haur eskola gehiago ireki, urte luzeetako esperientzia duten haur eskolak eta profesionalak hor ditugu. Luis Mari Elizalderen ustez *“profesional eta talde horien lana eta esperientzia luzea ez dira aintzat hartu eta aprobetxatu orain arte. Urteetako esperientzia luzea duten lan taldeek protagonismo handia eta lidergo pedagogikoa izan beharrean, azken orduan eta atzeko atetik ari dira sartzeko Partzuergoan. Agian haur eskolak martxan jartzeak izango du lehentasuna, baina gero profesional horien esperientzia eta prestakuntza aprobetxatu egin behar lirateke, bai Partzuergoan eta bai unibertsitatean. Ezagutza oso ona dute, gauzak eztabaidatu dituzte eta proiektu asko dituzte”*.

G A I A
0-3 urteko haurrak
eta euren eskolak

G

alazne petuya

Seaskako Pedagogia zuzendaria



Gogoeta egitea oso garrantzi-
tsua da. Zergatik egiten ditugu
gauzak, egin nahi ditugulako,
modan daudelako edo...?



Azkenean
zer da
garrantzitsuena,
programak edo
curriculumak
betetzea ala gure
ikasleen hezkuntza
eta prestakuntza?
Programak bere
baitan du
garrantzia ala
ikasleak du
garrantzia? Nik
uste dut une
honetan hemengo
irakasleak prest
daudela gogoeta
hori egiteko

22 urtetan Baionako eta Miarritzeko ikastoletan irakasle izan ondoren, azken lau urteotan Seaskako Baionako bulegoan dabil Pedagogia arduradun lanetan. Jaiotzez bilbotarra izan arren, 28 urte daramatza Iparraldean, eta ongi baino hobeto ezagutzen du euskarazko irakaskuntzaren ibilbidea.

Pedagogiaren garrantziaz jabetzeaz gain, horri buruz gogoeta egiteko beharraz ohartuta dago Alazne. Gogoeta hori bultzatzeko eta bideratzeko akulua lana egiten duela esan daiteke. Izan ere, eskola baten adar ugari ukitzen eta baldintzatzen ditu hezkuntza pedagogiak edo hezkuntza proiektuak.

Seaskaren ibilbideaz eta estatu frantseseko hezkuntzaren egoeraz mintzatzeko astia ere izan dugu.

Seaskak betidanik izan du bere ildo pedagogikoa. Zertan oinarritzen da ildo hori?

Gure ildo pedagogikoak Euskal Herriko Ikastolen mugimenduak finkatuak dituen ildo pedagogikoekin lotura du, elkarlanean aritzen baikara. Dena dela, egia da estatu frantsesean egon izan diren eta dauden ezagutzen eragina ere jaso dugula. Ikerketa pedagogikoan urteetan aitzindari izan da estatu frantsesa, eta horren kume ere bagara.

1976an Seaskan sartu nintzenean, ikastolen hautu pedagogikoa garai hartako pedagogiekin bat zetorren: pedagogia aktiboa, Freinet...

Orduko hautuak gaur egun mantentzen al dira ala gauzak aldatu egin dira?

Orokorki pedagogia munduan gauzak aldatu egin dira. Geroztik ikerketek beste ildo, beste metodo, beste jakitate batzuk ekarri dituzte. Beraz, hastapeneko hautuak gartzen joan gara eta beste ildo pedagogiko batzuk jorratzen ere bai.

Zein dira gaur egun erreferente pedagogikoak?

Aipatu dudan bezala ikastola proiektuan badaude pedagogikoki esanahi handia duten hautuak, hala nola hezkuntza komunitatea-





re-

na, hez-

kuntza proiektuarena, izaera eskualdunarena eta eskola berritzaile eta eraldatzailearena. Horiek dira, beste batzuen artean, gure oinarriko erreferenteak. Horrez gain, irakaskuntzaren praktika pedagogikoari dagokionez, azken hamarkadetan eragina izan duten korronteak ere erreferente izan ditugu, konstruktibismoa eta sozio konstruktibismoa, Piaget, Vigotski eta Brunerekin. Horrez gain, erreferentetzat har ditzakegu estatu frantsesean ikerketa pedagogikoa garatzen duten GFENko eta CRAPSeko taldeak eta kognitibismoan koka dezakegun Gogo Erabilketa, beste batzuen artean. Pedagogo bezala estatu frantsesean honako hauek aipa ditzakegu: Philippe Meirieu, Jean-Pierre Astolfi, Odette Bassis, Antoine de La Garanderie, Armelle Geninet, Marie-Claude Grandgillot edo Philippe Perrenoud, beste askoren artean.

1990an Hezkuntza Ministeritzarekin ikastolen ezagutza prozesua abiatu zen eta 1994an Seaskak eskola gisa onarpena lortu zuenean, pedagogikoki aldaketarik ekarri al zuen?

Egia da memento batean proiektu pedagogikoan noraezean gelditu ginela, jauzi kualitatibo eta kuantitatibo bat eman zelako. Ordura arte ikastolak ez ginen eskola bezala ezagutuak; elkarteak ginen, baina ez eskolak. Beraz, akordioa sinatu zelarik eskolaren ezagutza izan genuen.


Ordura arte curriculuma Hegoaldeko curriculumekin edo irakasleek egiten zutenarekin Seaskak finkatzen zuen. Baina aurrerantzean Hezkuntza Ministeritzako programak edo curriculumak bete eta garatu beharra zegoen. Aurretik ere zaintzen genituen, zeren eta gure haurrak hemen bizitzeko eta hemen aurrera ateratzeko hezten genituen. Nolanahi ere, batzuen iritziz gure nortasunaren ezaugarri batzuk "galdu", edo behar bada "ahaztu" egin genituen.

Zein nortasun ezaugarri ziren "ahaztu" ziren haiek?

Pedagogia mailan, lehen aipatu ditudan erreferenteak nolabait ezabatzen joan ginen "normalkuntza" bidean sartzerakoan. Gure praktikaren azterketa, hezkuntza komunitatearen gogoeta pedagogikoa eta gure antolaketa orokorra bidean ahaztu zitzaizkigu, "pixka bat". Batetik bestera pasa izanaren sentimendua badago. Programa betetzeak hartu zuen garrantzi gehiena memento batez.

Eta horrek zer ondorio ekarri du?

Programa horiek eskatzen duten azaleko paper kontuekin, edo beste era batera esanda, formaltasunarekin, ahanzten dugu funtsean duten mezu pedagogiko eta didaktikoa, hein handian oso egokia iruditzen zaidana. Pertsonalki, uste dut programek eskatzen dutena ez dela arazo; uste dut programei traera bat eman behar zaiela eta gauza biak orekatzen ahal direla. Baina horretarako, programen ezagutza ona izan behar da. Gauzak ondo ezagutzen dituzunean baliatzen ahal dituzu; aldiz, ez dituzunean ezagutzen maiz baliatzen zaituzte. Eta hor garrantzi handiena irakasleen prestakuntzak dauka nire iritziz. Gauza guztien oinarrian irakasleen



prestakuntza dago. Irakasleak ongi prestatuak baldin badaude, gai bidera programa edo curriculum hori ongi baliatzeko, ez dago arazorik. Arazoa da pedagogikoki eta metodologikoki ez jakitea curriculum horrek eskatzen dizuna eta zergatik, zuk irakasle eta kolektibo bezala hautuak egiteko; orduan, gaindituta zaude.

Gaur egun, orokorrean, irakasleek menperatzen al dituzte curriculum edo programa horiek ala gaindituta daude?

Nik uste dut Iparraldean memento batean izan dela gainditze sentimentu hori. Azkenean zer da garrantzitsuena, programak betetzea ala gure ikasleen hezkuntza eta prestakuntza? Programak bere baitan du garrantzia ala irakasleak du garrantzia? Nik uste dut une honetan hemengo irakasleak prest daudela gogoeta hori egiteko.

Programa Hezkuntza Ministeritzak ezartzen du. Hori derrigorrez bete behar da ala badago Seaskaren ikuspegitik eta euskal ikuspegitik gauza gehiago ere lantzeko modua?

Etengabeko
gogoeta egiten
dugu hezkuntza
pedagogiaren
inguruan eta uste
dut hori
funtsezkoa dela
gure izaeran eta
praktikan
funtsezkoa dena
ez galtzeko eta
garatu behar dena
garatzeko

Programa horiek bete egin behar dira, baina molda daitezke. Eta guk moldatu egiten ditugu euskal curriculumak garatu nahi dugulako.

1995ean definitu zenuten Seaskaren hezkuntza proiektua. Zein dira bere ezaugarri nagusiak?

Iparraldean Seaska beste eskoletatik bereizten duena eta hezkuntza proiektuaren lehen ezaugarria hizkuntza da, euskara eta euskalduna izatea. Estatu frantsesean euskaraz D ereduak dugun bakarrak gara. Beste hizkuntza gutxietan ere badaude murgiltze ereduak, baina euskaraz bakarrak gara.

Seaskaren ezaugarri pedagogikoei dagokienez, Seaskarenak ez, baina ikastolen mugimendu osoarenak aipatuko nituzke: hezkuntza komunitatearen ikuspegia eta horri ematen zaion garrantzi handia, zentzuari garrantzia ematen dion pedagogia, pertsona eta bere garapena osotasunean eta besteekin elkarlanean hartzen duen pedagogia, sormena eta jakin-mina aintzat hartzen dituen pedagogia, proiektuan oinarritutakoa...

1995az geroztik aldaketarik egin al zaio hezkuntza pedagogia horri? Eguneratzen al duzue ala lehen zehaztu zen bezala dago?

Bai ikastolak eta bai Seaskakak beti gogoeta pedagogiko baten ildoan sartuak gara. Horregatik, orain berrikusten ari gara. Zeren eta nahitaez gizartea aldatzen da, ikastolak aldatzen dira eta hautu pedagogikoak ere aldatzen dira. Ez dago ezer egonkorra denik, gauzak aldatzen joaten dira. Eta uste dut ikerketa horretan etengabe jardun behar dugula gure izaeran eta praktikan funtzeskoa dena ez galtzeko eta garatu behar dena garatzeko. Eta hori egiten eta bultzatzen saiatzen gara.

Berrikuspen hori ikastola guztiekin egiten duzuela aipatu duzu. Nola antolatzen eta bideratzen duzue?

Foro ezberdinak ditugu eta gure nahia da lan hau hezkuntza komunitatea osatzen duten kolektiboekin egitea. Mementoko zuzendari eta irakasleekin hasi dugu. Urtean zehar, bi "pedagogia egun" deitzen ditugunak ditugu. Horietan, ikastolako irakasle guztiak biltzen ditugu. Azken urteetan hezkuntza proiektuaren gogoetari eman diogu lehentasuna, hots, gogoeta pedagogikoari.

Helburua, beraz, proiektu hori berrikustea da: ikastolak nola joan diren praktika pedagogikoa garatzen, zer egiten den... Zeren baitzuetan gauzak egiten ditugu, bai-



na ez dugu gogoetarik egiten; eta gogoeta egitea ere oso garrantzitsua da. Atzera begiratzea eta egiten duguna zergatik egiten dugun jakitea garrantzitsua da; hau da, zergatik egiten dugu, egin nahi dugulako ala modan dagoelako edo...? Beraz, nolabait ohartu gabe egiten ditugun hautuen gogoeta egiten dugu.

Zenbat lagun zabiltzate Seaskako pedagogia taldean eta zer zeregin dituzue?

Seaskatik gizarte egiturek eskaintzen ez dituzten zerbitzu batzuk bideratzen ditugu. Esate baterako, hemen ez dago Berritzegunerik edo ILZ aholkularitza zerbitzurik, eta lan horren zati bat betetzen dugu.

Gauregun bi pertsona ditugu gure ikastoletan zailtasun bereziak dituzten haurren jarraipena egiteko. Badago beste bat integrazio arazoak dituzten haurrekin aritzen dena.

Formazio arloan bi aritzen gara, eta hor prestakuntza mota bat baino gehiago eskaintzen ditugu. Batetik hastapeneko formazioa. Estatu frantsesean irakasle izateko, lizentzia bat atera behar da lehendabizi, eta ondoren, oposaketak egin. Sare bakoitzak bere irakasleak prestatzen ditu oposaketetara aurkez daitezten eta prestakuntza horri deitzen diogu hastapeneko formazioa. Bestetik, Bigarren Hezkuntzako irakasleen formazioa dugu. Lizentziadunak izan arren, prestakuntza pedagogikorik ez dute izaten. Beraz, irakasle horientzako ere bi urteko formazioa prestatzen dugu. Azkenik, formazio jarraia ere eskaintzen dugu. Horrez gain, Ikastolen Elkarteko beste proiektuetan ere parte hartzen dugu, koordinatzaile bat dugu Euskal Soin Jarduerarentzat eta beste bat Euskaraz Bizirentzat.

Formazio jarraiari dagokionez, zein irizpideren arabera egiten duzue eskaintza?



Lehenik beharren detekzioa egiten dugu eta ondoren beharrei erantzuten saiatzen gara. Baina formakuntzaz gogoeta orokor bat dararamagu arlo horrek behar duen trataera finkatzeko eta gure hezkuntza proiektuarekin koherentea izateko.

Zein dira azken urteotan nabaritzen diren beharrik azpimarragarrienak?

Irakasleengandik azken urteetan programen inguruko eskakizunak dira gehienak, metodologia eta gaien trataerari buruzkoak.

Beste sareetan ba al dago Seaskan dagoen mugimendu pedagogikorik?

Bai, badago gogoeta pedagogikoa, uste dut eskola guztietan dagoela eta gauza onak egiten dira. Baina iruditzen zait gurean orokorrak dela, mugimenduak orokorrean duen ikuspuntu bat badela. Irakasleen formazioan adibidez; beste sareetan lanorduetan egiten dituzte, eta guk maiz oraindik lan denboratik kanpo egiten dugu eta irakasleak etortzen dira. Gurasoen inplikazioa ere handia da. Horrek denak zerbait erakusten du.

Hezkuntza pedagogiaz gain, ikastola bakoitzak bere eskola proiektua du. Nolakoa da?

Eskola proiektua Hezkuntza Ministeritzaren galde bat da. Urtee-

tan eskoletan irakasleek bakarka egiten zuten lan, norberak bere gelan, eta hortik kanpo gertatzen zena ez zen sobera bere arazoa. Estatu frantseseko Hezkuntza Ministeritzak 1989an "Loy d'application 89" jarri zuen. Horrek, alde batetik irakasleentzako prozesua ez zuen ordura arte egiten zen bezala urteka banatzen, zikloka baizik, irakasleen arteko elkarlana bultzatzeko asmoz, beste batzuen artean. Ondorioz, programaren helburuak ez dira gehiago urteka finkatuak, zikloka baizik. Eta horrek eskatzen du zikloen eta irakasleen arteko lan bat, programa horien helburuak nola landuko eta lortuko direnikusteko.

Beste aldetik, proiektuaren ideia horrekin eskolak ere proiektu bat behar du eta proiektu horretan partaide behar dira bai irakasleak, bai ikasleak, bai gurasoak, eta bai beste langileak; hau da, hezkuntza komunitatea.

Beraz, eskolako proiektuaren helburua da eskolari helburu bat ematea. Eskolak bere beharrak eta nahiak aztertzen ditu, eta horien arabera gai bat hautatzen du eta eskola guztiak gai horren inguruko hiru urteko proiektu bat egiten du. Urteka gauzatuko du, baina hiru urteko helburu batekin.

Nork egiten du?

Irakasleek egiten dute hezkuntza komunitateko beste partaideekin.

Murgiltze sistema ongi da, baina gelaren 3/4 edo gehiago erdaldunak direnean hizkuntzari trataera berezi bat eman behar zaio. Orain dela 20-25 urte egiten genuena edo oraindik barnealdeko herri batzuetan egin daitekeena ezin da egin gaur egun beste zenbait gelatan

Orduan, eskola proiektua erabiltzen den zerbait da, bizia, ala armairuan egoten den dokumentua?

Ez da dokumentu bat izan behar. Dokumentuaz gain, eskolari, irakasle taldeari, ikasleei, eskola bezala gai edo helburu bat ekarrikodion zerbait izan behar du. Saiatzen gara dokumentuari ahal den lekurik txikiena uzten eta praktikan eskatzen duenari bere tokia ematen. Helburua ez da dokumentu bat egitea. Helburua da hezkuntza komunitateko indarrak denontzat onurgarria izan daitekeen gai baten inguruan mobilizatzea. Beraz, dokumentua zenbat eta sinpleagoa izan hobe, errazki irakurtzeko eta gero errazki jartzeko praktikan.

Iparraldeko egoera larriaz jakitun, nolakoa da ikastoletako giletako egoera?

Aski da Eusko Jaurlaritzaren azken inkesta soziolinguistikoa emaitzak irakurtzea, Iparraldean euskarak gero eta leku gehiago galtzen duela ikusteko, gero eta gutxiago hitz egiten dela eta egoera larria dela. Badakigu Iparraldean harkada batzuetan euskarak gutiz gibelerat egin duela. Ikastoletan ditugun haurren hein handi bat etxean frantsesez hitz egiten dutela; bai kostaldean, baina barnealdean ere gero eta gehiago. Eta hori arazo larria da, zeren eta murgiltze sistema ongi da, baina gelaren 3/4 edo gehiago erdaldunak direnean hizkuntzari trataera berezi bat eman behar zaio. Orain dela 20-25 urte egiten genuena edo oraindik barnealdeko herri batzuetan egin daitekeena ezin da egin gaur egun beste zenbait gelatan. Lehen bi edo hiru erdaldun zeuden besteekin batera euskara eta euskaraz ikasten. Orain alderantzizkoa gertatzen da. Beraz, hizkuntzari trataera berezia eman behar zaio, bai Iparraldean eta bai Hegoaldeko zenbait lekutan, pentsatzen dut.



Eta ba al dakizue zein den eman beharreko trataera hori?

Trataera ez da beti erraza inplikazio pertsonala eskatzen duelako.

Hizkuntzaren erabilerari eta materialei dagokienez, badugu Ikastolen Elkarteak egindakoa. Material horrek metodologia bat proposatzen du, eta metodologia horrek hein batean gelan aurki daitezkeen egoera anitzei erantzuten die. Haur euskaldunak baldin badituzu, ez dago arazorik. Erdi eta erdi baldin badituzu edo taldean hiru edo lau euskaldun galdu baldin badituzu, beste proposamen batzuk badaude hizkuntza ikuspegi komunikatibo batetik landuz egoera horri hein batean nola erantzun jakiteko. Eta azken urteetan egin diren ikerketa eta beste proposamenak ere badaude.

Nire bizipen pertsonalean oinarrituta, irakasle bezala oso zaila dela deritzot. Ama ikastolan edo Lehen Hezkuntzan komunikazio bizia eta naturala egin nahi duzularik, zaila da haur gehienak erdaldunak badira. Horrek, lehenik gogoeta eskatzen du, benetako gogoeta pedagogikoa ikusteko nola erantzun hor dituzun behar anitzei. Eta bigarrenik, irakasle bezala benetako inplikazioa eskatzen du, ondo egin nahi baldin baduzu, bederen.

Gero ere ez da lan erraza. Euskara ikasten dute, baina jarioan, aberastasunean... ez dira berdinak ikastolatik kanpo ingurune euskaldunean bizi diren haurrak eta ingurune erdaldunean bizi direnak.

Euskaraz Bizi proiektua eta horrelako ekimen gehiago behar ditugu euskararen erabilera eta kalitatea segurtatzeko.

Gizartean euskararen aldeko mugimendu ugari egon dira: euskar departamenduaren aldeko aldarrikapena, Batera plataforma, Elgar-ensemble mugimendu politiko berria... Horrek eraginik ba al du Seaskaren lanean?

Lanean ez dut uste. Funtsezko arazoa euskararen ofizialtasuna da. Ez da ofiziala, ez da ezagutua, eta denok dakigu bidea oso zaila dela. Badakizue zer gertatu zen Baionako auzitegian demoekin. Bada, hori gizarte arazo orokorra da. Gauzak horrela, bideak aurkitu behar ditugu gure proiektua eta gure helburuak betetzeko.

Estatu frantseseko beste hizkuntza gutxituen egoera nolakoa da?

Egoera hoberean gu gara bretoiekin, okzitandarrekin eta katalanekin konparatuz. Alsaziarrekin desberdina da. Alemaniatik oso hurbil daude eta horrek indartzen ditu. Oso zabaldua dago, baina ez dute murgiltze sistema, B eredua dute. Hala ere, badugu harremana.

Dena dela, hizkuntza, antolaketak eta indar aldetik garatuenak gu gara. Gure herria mugaz bi aldeetara hedatzen delako eta elkarlanean ari garelako.

Ikasturte hasieran administrazioari 93. lanpostua eskatzen ari zineten. Nola bukatu zen afera hori?

Postu erdi bat gehiago lortu genuen eta orain aurtengo negoziaketetan zer gertatzen den ikusi behar dugu. Zeren eta urtero negoziatzen ditugu postu horiek administrazioarekin.

Nolakoa da administrazioarekin daukaguen harremana?

Urtero berdintsua da. Aurtengo jarrera orokorrean ezkorra izan da. Eskoletan lanpostu asko itxi dituzte bai ikastetxe pribatu konfesionaletan eta bai publikoan; postuak itxi dituzte edota ez dituzte postuak eman... Jarrera orokorrean izan da ezkorra, ez gurekin soilik. Postu garbiketa orokor bat egin dute dirua murrizteagatik.

Estatuak hezkuntza eztabaida prozesu bat ireki du. Zer iritzi duzue horren inguruan?

Planteatu duten eztabaida eskolaren egoeraz gogoeta egiteko da. Hemen, ordea, eskolaren ikuspegia ez da Hegoaldekoa bezalakoa. Hemen, errepublikarentzat, existitzen den eskola bakarra berea da eta bere eskolarako planteatu du eztabaida. Eztabaida guneetan parte hartzeko eskatu digute eta hala egin dugu, baina beraienez eskola euren eskola da. Gainera, nire ustez, hartu behar diren erabakiak hartuta daude. Demokratizazio kutsu bat eman nahi diote eta horregatik abiatu dute eztabaida.

Edonola ere, errepublikaren eskolak indar handia du. Ez dakit esan ote daitekeen gaur egun pixka bat noraezean dagoenik, baina eskola hori gizartean dago, eta gizartean arazoak daukenez, arazo horiek eskolan ere badaude.

Zein dira arazo horiek?

Bat baino gehiago dira, baina memento honetan integrazioa aipatuko nuke. Adibidez, erlijio ikurra eramateko debekuekin benetan azpian dagoen arazo bat esaltzen ari dira: zer den integrazioa, zer asimilazioa, emakumearen tokia, zer ikuspegirekin


kin tratatu gizarte arazo horiek, zer trataera eman kulturantzatasunari... Parisen, Marseellan edo Lyonon frantses eskolara joaten diren gazteak daude, frantsesa menderatzen dutenak edo ez, baina etxeko hizkuntza, kultura ez dute frantsesa. Eta estatuak hor du benetako arazoa. Gizarte arazo bat da, eta eskola arazo, eskolaren izate politiko eta sozialarengatik.

Seaskako ikastoletan haur etorkinik ba al dago?

Ez, gaur egun Iparraldean ez dago etorkinen migrazioirik. Dauden etorkinak Frantziatik etortzen direnak dira. Horien artean gutxi batzuk euskaraz ikasi nahi dutelako hautatzen dute ikastola, eta trataera berezia eman behar zaiela, badakigulako gizartean euskarak oso leku gutxi duela. Bestalde, haur adoptatuak baditugu, eta horiei ere erantzun bat eman behar zaie. Horregatik, Ikastolen Elkartean etorkinen gaia lantzeko talde bat sortu da eta horretan parte hartzen dugu.



...eta Miróren koadro bat jakintza iturri bihurtu zen



Lau urteko haurrak dira esperientzia honetako protagonistak. Inu eko Mendillorri IV eskolako irakasleek kontatu digute. Miróren koadro batek (La canción de las vocales) erakarri zituen haurrak, argiak eulia nola. Interes-zentro honen bidez hainbat esparru lantzea pentsatu dute irakasleek, Nemerovsky autorearen jarraituz: batetik plastikaren esparruan sakonduko dute, forma eta koloreetan erreparatuz. Bestetik hizkuntza landuko dute, artelanaren izenburuak irekitzen dituen bideetan sartuta, eta baita gurasoei erakusketarako bidaliko dieten gonbidapen txarrekin ere. Matematika alorrari dagokionez, artelanaren neurriak eta formak edukiko dituzte kontuan.

Miróri buruzko liburu batean haurrei arreta piztu die koadro batek. Are gehiago harrizko dira errealitatean zenbateko tamaina duen jakiten dutenean. Liburuan neurriak ageri dira, eta haurrek tamaina hori irudika dezaten, lurrean zintarekin neurri bereko laukia egiten saiatuko dira. Metro bateko erregela ekarri dute gelara. Lehenik, 4 urteko haurrak metro bat "zenbat" den jabe daitezen, irakasleak halaxe galdetu die: "gu metro bat baino altuagoak ala baxuagoak gara?". Eta denek erregelarekin neurtu dute euren burua.

Miróren koadroak zenbat neurtzen duen adierazi die irakasleak, arbelean idatziz eta ahoskatuz: "Miróren koadroak zabaleran hiru metro neurtzen

ditu. Zenbat aldiz erregela hau?" eta haurrek "hiru aldiz" erantzun diote. Beraz, lurrean erregelarekin hiru marka egin eta zeloaz marra bat osatu dute. Zabalerarekin gauza bera egin dute gero. Lauki zuzena itxi dutenean, ikasleak igerileku bat dela esanez saltoka hasi dira, laukitik sartu-irtenean.

Guk ere koadro bat egin nahi dugu

Koadroaren izenburua zein den esan die irakasleak: "La canción de las vocales". Euskaraz nola deituko dioten erabaki dute gero: "bokaleen kanta". Eta bost bokalak zein diren gogoratu dute ondoren. Koadroa egin zeneko urtean kokatu dute euren burua. Irakasleak hala esan die: "1967. urtean margotu zuen. Koadro honek nik baino urte bat gehiago dauka, eta nik 34 urte ditut. Zenbat urte ditu koadroak?".

Koadroaren sakoneko kolorean jarri dute arreta gero: erabat beltza da. "Tamaina hau margotzeko lan handia izan zuen Mirók" aipatu du irakasleak. Eta orduantxe "guk ere egin ahal dugu?" bota du Leirek. Irakasleak zalantzak ditu: "Bai? Nola? Ez daukagu hain handia den paperik". Baina Ivani konponbidea bururatu zaio: "ba beitu, hartzen ditugu paper txiki asko horrela" (eta koadroaren area betetzen hasi da). "Bai eta gero zelos itsasten dugu" errematatu du Inigok. Ideia biribiltzen lagundu die irakasleak: "eta orri txikiak (A4) jarri orde, handiagoak (A3) jartzen baditugu, lan handiagoa ala txikiagoa izanen dugu?". "Txikiagoa" jabetu dira ikasleak. Etxerako ordua da,

baina arratsaldean jarraituko dute hasitako lanarekin. Denak emozionatuta doaz, pentsatuz "rodilloarekin" edo arrabolarekin orri asko beltzez margotu behar dituztela.

Horizontala eta bertikala

Margotzen hasi baino lehen, zenbat orri margotu beharko dituzten galdetu die irakasleak. "Asko" da ikasleen erantzuna. Eta lauki zuzenaren azalera orriz betetzen hasi dira; bakoitzak orri bat hartu eta bere txanda itxaroten du. Baina azalera orriak paratzean... "Orriak marrik kanpo ateratzen dira (jabetu da irakaslea). Zer gertatzen da? Goizean ez zitzaigun hala gertatzen". Denek utzi diote orriak jartzeari, eta koadroari begira geratu dira. Ivan konturatu da: "orri buek eman behar diegu, horrela" eta bertikalean zeuden orriak horizontalean jarri ditu. Hala, marra barruan sartzen zirela ikusita, lagunek orri guztiak behar bezala jarri dituzte.

Arrabolaz orriak beltzez margotzen hasi dira gero. Iritsi da etxerako garaia, eta ez dakite ziur nahiko paper margotuta ote duten. Kontatu eta 26 orri margotzera iritsi dira. "Zer uste duzue, orri nahikoa ala gutxitxo margotu ditugula?" galdetu du irakasleak. Batzuen ustez 26 orri asko dira, pasatu egin dira. Besteen ustez oraindik gehiago behar dira. Hori bihar jakingo dute.

Kalkulua

Atzokoan bezala, gaur ere ez dira ados jartzen nahikoa orri margotu ote dituzten edo gehiago beharko diren. Beraz frogatu egin dute, koadroaren area margotutako paperez betetz. Gehiago

behar dira. “Zenbat gehiago?” irakasleak. “Ez dakit” da erantzuna. “20 gehiago?” orduan irakasleak, eta haurrek ezetz, hainbeste ezetz. Bakoitzak uste duen kopurua botatzen du. Frogaren bidez, zazpi orri gehiago beharko dituztela ikusi dute, eta kopuru hori zehatz asmatu dutenak oso pozik jarri dira. Bada arazo bat, ordea: zazpigarren orria ez da osorik sartzen. “Zer egingen dugu?” irakasleak. “Moztu” esan du norbaitek. Kasualitatez A4 tamainako orriarekin froga egin, eta justu sartzen da hutsune horretan.

Lana banatu dute, beraz. Talde bategi falta diren zazpi orriak margotuko ditu, eta beste taldea orriak itsasten hasiko da. Itsatsi aurretik orri guztiei buelta eman diete, zeloa nabari ez dadin. Bukatu dute azkenean. Koadro osoari buelta eman, eta harro begiratu diote euren lanari.

Izenburuari tiraka

Koadroaren izenburua “Bokaleen kanta” da. Miróren artelana ongi begiratu eta bost kolore daudela konturatu dira. Talde osoak erabakiko du bokal bakoitzari zer kolore dagokion. A zuria izango da, E morea, I gorria, O laranja eta U berdea. Haur bakoitzari bokal bat egokituko zaio, irakasleak banatu dizkien txarteletan. Bokaleen ordena jarraituz deitu ditu haurrak, eta txanda iristean haur bakoitzak Miróren artelanetik kolore horretako tanto edo orbanetatik nahi zuena aukeratu du, ondoren orban hori bera ikasgelako koadroan kokatzeko. Kosta egin zaie gelako koadroan orban bakoitza kokatzea, baina, aldi berean, oso baliagarria izan da oinarrizko kontzeptuak lantzeko. Proporzioak zaindu behar izan dituzte, liburuan ikusitako orbanak handitu egin behar baitzituzten ikasgelako koadroan jartzerakoan.

Non jarri koadroa?

Euren gelan bertan zintzilikatu nahi dute, baina gelako altuera neurtu eta koadroa baino baxuagoa dela konturatu dira. Julen ez zen fidatzen halere, eta eskailera baten bila joan dira froga egiteko. Hau desengainua: gelan ez da sartzen! Ivanek guraizeekin laster konpondu nahi zuen arazoa. Agian, bertikalki jarri ordez, horizontalki jartzen



badugu sartuko da. Inñigoren ideia ona izan da, baina Miróren lanarekiko fidelotasuna gorde behar zutela azaldu die irakasleak.

Gelan ezin jarri eta eskolan barna ibili dira leku egoki baten bila. Koadroa hara-hona eramatea ez denez oso eroso, metroko erregelarekin joan dira, eta haurrek gustuko duten leku bakoitza neurtzen jardun dute: “hiru erregela eta pixkatxo bat” zen neurria. Azkenean aurkitu dute non jarri: eskaileratako pasalekuan.

Handiek artelana apurtzen badute, zer?

Horman paratuta, harrিতuta gelditu dira denak efektuarekin: izugarri aldatzen da koadro bera lurtean ikusi edo horman zintzilikatuta ikusi. Haurrak harro-harro daude. Julenek zaindari gisa gelditu nahi du lana inork

apurtu ez dezan. Egia da, besteek apurtzen badute, zer? Gelaz-gela joatea pentsatu dute, nahiz lotsa pixka bat izan, eta eskolako handiei azaldu diete zer lan egin duten eta errespeta dezatela eskatu diete.

Mir gure etxean

Gurasoak koadroa ikustera gonbidatu dituzte, denen artean asmatutako ohartxo baten bidez. Gurasoek izugarri parte hartu dute eta Interneten, aldizkarietan eta liburuetan informazioa bilatzen arituak dira haurrek eskolara ekar zezaten.

Artea gelara hurbildu da, eta badirudi Miróren izena eta margotzeko modua ez zaiela ahaztuko, ikasturtean zehar ere bere izena behin eta berriz azaldu baita. Gainera, lana denen artean egiteak taldea batu du eta identifikatu egin dira euren lanarekin. •

Irakurketa eta plastika Villabonako Erniobea institutua

Institutuko gazteen artean irakurtzeko zaletasuna piztea, horixe izanda esperientzia honen helburua. Bi ikasgairen artean elkarlana egin dute horretarako: euskarako eskoletan egindako irakurketa lanari, plastikako eskoletan eren diote segida. Emaitza: gustuko liburuei buruzko triptiko erakargarriak jarri dituztela erakusketan, institutuko korridorean. Ikasleak zorutzen daude euren lanak hartu duen kolorearekin eta sortu duen arretarekin. Euskarako irakasleak, Mila Izetak, kontatu dizkigu esperientzia honen xehetasunak.

Institutuko ikasle gazteen artean oso zaila da irakurtzeko zaletasuna eta ohitura sortzea. Formula magikorik ez dago, baina klabe batzuk badira, Milarentzat oinarriko direnak: *“Batetik, irakurtzeko aukera ematea. Alegia, irakurketari denbora eskaintzea gelan, eta ikasleei aukera ematea hartu*

duen liburua gustatu ez bazaie utzi eta beste bat hartzeko. Bestetik, gelako giroak ere eragin izugarria du. Ingurukoek asko irakurtzen badute, eta halako liburua izugarri gustatu zaiela esaten entzuten badituzu, horrek ere animatu egiten zaitu gehiago irakurtzera”.

Mila Izetarekin institutuko 3. eta 4. mailako ikasleek euskara lantzen dute. Ebaluazio bakoitzean liburu jakin bat irakurri beharra dute eta horri buruzko lana egin. Lanak ezberdinak izan ohi dira: hasi ohiko azterketa lanetik (istorioaren laburpena, pertsonaien deskribapena, hizkuntzaren azterketa eta iritzi pertsonala emanez), eta irakurritako liburuaren amaiera aldatzera, edota irakurtzen hasi aurretik, izenburuak zer istorio iradokitzen dien kontatzera. Behin nahitaezko liburu hori irakurrita (“Kutxidazu bidea, Ixabel” izan da azkena), nahi adina liburu irakur ditzakete, kopuru batera derrigortu gabe. Irakurketa plazera izan dadin, ikasleari berari sortu zaion beharra, eta ez lana. Horretarako, baina, tentazioa sortu be-



har, irakurtzearen aldeko giroa sortu behar ikasgelan. Triptikoak izan daitezke amu bat.

Triptikoak, ikaskideentzat erreferentzia

Plastikako eskoletan triptikoak diseinatzen ikasi dute. Paper berezia hartu, zaharkitu itxura emateko kafez blaitu, eta ondoren nork bere irudimenez busti: orri lehorrak itsatsi, hondar-alez formak sortu, ertzak erre, purpurina eman... Institutuko korridorea erakustazoka bihurtu da. Ikasleek harro begiratzen diote nork bere lanari. Triptikoak ikusita jabetzen dira zenbat irakurri duten, izenburu bakoitzaren atzean zer istorio eta zein idazle ezagutu duten, zein liburu den gomendagarri. Era berean, ikaskideen triptikotan beste hamaika liburuaren erreseinak irakur ditzakete, eta lagunaren iritzia ere bai, gida moduan oso baliagarria dena liburu bat edo bestea hautatzeko. Elkarri irakurtzera gonbidatzea, horixe da sortu duten giroa. ●



kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

Haur etorkinei hizkuntza nola irakatsi. Oinarrizko prestakuntzak eta jokabideak¹



Uri RUIZ BIKANDI

EHUko Gasteizko Irakasle Eskolako irakaslea

Aldaketa garaia da gurea. Orain arte sekulan izan ez diren mudantzak ari dira gertatzen munduan -eta gurean ere bai-. Garai berri baten hasieran gaude, duarik gabe. Eta sasoi hori, orain, gure eskoletan hasi da hazten. Beti bezala, etorkizuna, neurri batean, gure esku dago, belaraldi berriak prestatzen ditugun irakasleon esku. Gizaki guztion

oinarrizko berdintasunean sinitu dugun eta giza eskubideak lege ditugun, etorkinen seme-alabak euskal hiritar oso izateko eta, aldi berean, herentziaz datorkiena gordetzeko duten eskubidea defendatzen dugu.

Eskolak bizitzarako prestatzen dituzten haurrak, bizitza sozialak jarriko dizkien baldintzei era onenean erantzuteko prestatu ere. Herri honetako bizitza soziala bi hizkuntzetan egiten da, eta eskolak bi hizkuntza horietan bizitzeko prestatzen dituzten belaunaldi berriak.

Hori dela eta, azken honetan galdera bat maiz ari da planteatzen: "etorkinen haurrei gure hizkuntza irakasteko orduan, zein dira kontuan izan behar ditugun oinarrizko prestakuntzak eta jokabideak?"

Niri dagokidanez, zenbait buelta eman eta gero, ondorio batera iritsi naiz: ez dakit galdera horrek zentzurik ba ote duen. Hau da, hizkuntza berri bat irakasteko dagokionez, ba al dago berdintasunik etorkinen eta bertone

jaiotako seme-alaben artean? Eta alderik balego, non? Ene aburuz, oro har, bigarren hizkuntza irakasterakoan, alde ez da orain arte gure ikasle izan diren artean egon daitekeena baino handiagoa: hau da, haur bakoitza diferentia izan arren, aldi berean denak dira berdinak, hizkuntzak ikasteko aukera bertsuak dituzte.

Etorkinen haurrei dagokienez, berezi izatekotan, ikaskuntzan eragina izan dezaketen faktore sozial gutxi batzuetan dira berezi. Alde batetik, haien familien ahulezia soziala da, hemengo parametroen ezagutza eskasaren eta harreman sozial urrien ondorioz, ikaskuntzaren arrakastaren kontra joka lezakeen faktorea. Bestalde, etorkinen haurrak bertakoenak baino behartuago egoten dira bizimodua aurrera ateratzera, ikastera, aurreratzerara. Beren herrialdea utzita, horretarako etorri dira eta gurasoak horren urrunera.

Baina gure begiradan aurki daiteke alderik garrantzitsuena, eraginik handien izan dezakeen aldea: nola begiratu ditugun, iritzia nola osatzen dugun aurrez, hau da, haurra ia ezagutu ere

¹ Artikulu hau "Aniztasunaren tratamendua: etorkinak hezkuntza sisteman (I)" ikastaroan (EHUko Udako Ikastaroak, Donostia, 2003) emandakoaren laburpena da. Uri Ruiz Bikandirekin harremanetan jartzeko e-posta: tlprubim@lg.ehu.es

egin gabe, hasiera-hasieratik berarengandik espero duguna da benetan alde marka dezakeena. Izan ere, helduen espektatibek ikasleen arrakasta mugatzen dute. Irakasle on subjektibitate eta aurreiritziak giltzari dira, bada, hauren arrakastan. Haien etxeko jarrera baikorrari gurea lotzen badiogu, emaitza onak atera ahal izango dituzte.

Hezkuntzaren helburuak

Bigarren hizkuntzen irakaskuntzaz dakigunok, murgiltze programak praktikara eramaten ari garenek, mundu anglosaxoian etorkinen inguruan egindako ikerkuntzetatik ikasi dugu batik bat. Ikasle berri horiei bigarren hizkuntza irakasteak orain arte egin duguna sakontzea eskatu digu eta prozesuez kontzienteago egingo gaituzte, gure lanean hobetzera bultzatuz.

Izan ere, neurri handi batean gure eskuetan egongo da haur horiek aurrera ateratzea, ahalik eta hobekien hezteak. Hau da:

- Emozionalki haztea, beren ahalmen guztiak garatzea eta beren buruarikiko irudi ona izatea, pertsona helduak eta orekatuak izan daitezen.

- Sozialki integratzea eta harreman sozial onak izatea, eskubide eta betebeharrak guztiak dituzten hiritar senti daitezen.

- Intelektualki eta fisikoki garatzea ezagutza maila gorenera hel daitezen eta izan nahi dutena izateko aukerak izan ditzaten.



- Bizimodua aurrera ateratzeko prestatzea.

Helburu sozioafektibo eta intelektual horiek ondo lortzeko, hemengo hizkuntzak menderatu behar dira. Menderatuko dituzte, baldin eta, Ausubelek dioenaren ildotik, edozein pertsona ikastera bultzatzen duten funtsezko sei behar asetzeko aukerak baldin badituzte. Behar horiei erantzun egokia ematea litzateke eskolaren zeregin nagusietako bat:

1.-*Arakatze beharra*, "mendiaz bestaldera" begiratzeko beharra, ezagutza frogatzeko: pertsonak dakiena baino harantzago jakiteko gogoia izaten du, ezagutzen ez duen jendea, gauzak eta abar ezagutzeko gogoia.

2.-*Maneiatzeko beharra*, inguru nean eragin eta bertan aldaketak sortzeko beharra da gizakiok duguna: beste gauza batzuen artean, hizkuntza bera maneiatzeko beharra, esateko moduak probatu beharra...

3.-*Jarduteko beharra*, mugimenduan eta jardunean -burukoan zein fisikoan aritzeko beharra: arakatzea, esperimentatzea, saiaterak... beharrezkoa dugu.

4.-*Estimulatua izateko beharra*, inguruneak, sentimenduek, pentsamenduak eta ideia askotarikoek eragiteko beharra: harreman sozial berriak izateko beharra du pertsonak, jende, gertaera eta esperientzia askotarikoak biziitzeko, hizkuntza berria maneiatzeko, gauzak probatzeko...

5.-*Ezagutza beharra*: arakatzeak, maneiuak, jarduerak eta estimulazioak emandako ondorioak prozesatzeko eta barneratze beharra; kontraesanak argitzeko, arazoei irtenbidea emateko eta ezagutza sistema sendoak topatzeko beharra; pentsatzeko, azalpen sendoak izateko, nor bere buruan koherentzia bilatzeko beharra.

6.-*Autobaieztapenaren beharra*: besteek guk ezagutzeko, onartzeko eta aintzakotzat hartzeko beharra.

Horiek dira ikastera bultzatzen eta motibatzen gaituzten barne beharrak. Ikasteak hortxe dauka erroa. Eskolak behar horiei erantzun behar die, bide eman behar die.

Hizkuntza berri bat ikasteari dagokionez, ba al dago desberdintasunik etorkinen eta bertan jaiotako seme-alaben artean? Eta alderik balego, non?

Hizkuntza ikaskuntzaren alde nagusiak

Behar horiek motibatzen dute edozein ikasketa, eta hizkuntzarena ere bai. Ikasketa horretan, pertsonaren lau alde daude bereziki inplikaturik, gutxienez. Horietaz mintzatuko gara ondoren, horien inguruan irakasleak zeregin handia baitauka.

- **Alde kognitiboa**: ezagutzak ("munduari buruzko ezagutza" deitzen denak) eta adimenak hizkuntzaren ikaskuntzan eragina badaukate, baina ez dira ikaskuntzaren faktorerik handienak. Bestalde, ezagutza (txikia izan daitekeena) eta ezagumena (handia izan daitekeena) ez dira nahastu behar: baserriko mundutik, herri txirotuetatik edota eskualde ez industrializatuetatik datozenek ez dituzte gure munduko gauza asko ezagutzen. Ez dira baina, horregatik, atzeratuagoak.

Gure lana ikasle horiei dituzten ezagutza beharrak betetzen laguntzea da. Hizkuntza eta munduaren ezagutza eskuti lotuta doazenez, ez dugu hizkuntza garatu arte zain egon behar edukiak emateko. Ikasgaien bidez ikas dezakete hizkuntza, baldin eta gaiak interesgarriak badira eta behar duten laguntza ematen badiogu. Horregatik, gaiak sendoak eta erakargarriak izan behar dute hasieratik beraiantzat, ez inora ez doazen ezagutza gutxiko denbora-pa-



sak edota memorizatzeko zentzugabekeriak. Irakaskuntza esperimentala eginez gero, hobeto lagunduko diegu. Espektatiba altuak izan behar ditugu ikasle horiekin eta beraien ahalmenetan konfiantza eduki.

- **Alde komunikatiboa:** ikasleek parekoekin eta helduekin komunikatzeko aukerak izan behar dituzte, ugari. Ikasle alofonoak helduak gidatutako elkarrizketa asko izan behar ditu eta irakaslea arduratzen dela sentitu behar du, berarekin emozionalki inplikaturik dagoela.

Elkaren arteko ulermena ziurtatzeko, komeni da irakasleak estrategia asko eta onak erabiltzea, eta beste ikasleak hezteko eta prestatzeko gure hizkuntza ondo ez dakitenekin komunikatzen ikas dezaten. Ikaskuntzan aurrera egin ahala, komunikazio maila igotzen eta adierazpidea zorrotzen irakatsi behar diegu, bereziki eskolako zereginetan ondo maneiatzeko beharrezkoa den hizkuntza irakatsiz.

- **Alde soziala:** harreman sozialen kalitateak hizkuntzaren ikaskuntzan garrantzi handia dauka. Haurrak zenbat eta lotura gehiago eta estuagoa izan bere parekoekin, hobe. Beraz, gelako eta eskolako sare sozialetan integratzeko bideak erraztu behar zaizkio. Horretarako, taktika eta jokabide asko izan ditzake irakasleak, bere jokabidea giltzarri baita ikaslea laster gelako partaide eta besteen pareko senti dadin: eragiketarako prestatzerakoan, espazio eta denborak atontzerakoan eta gelako zeregin guztietan hitzun berria kontuan izango du.

- **Alde emozionala:** haurrak estimatua dela jakin behar du, irakaslea ardu-

ratzen dela, aurrera ateratzen lagundu nahi diola eta garrantzitsua dela bereztat. Hori oso garrantzitsua da ikasleak bere buruarengan konfiantza izan dezan.

Bere familia, erlijio, ohitura eta abarrei lotutako gaiez hitz egiterakoan, haurrak irakaslea interesatuta dagoela antzeman behar du, eta den bezala onartzen duela sentitu ere bai. Aldi berean, irakasle inplikaturik erroka berriak jarriko dizkio, laguntza eta maitasuna eman bai, baina eskatu ere egingo dio. Ikasleak ahal duela jakinda, zorrotza izango da.

Haurrak, bere aldetik, eskakizun sendoak egiten zaizkiola jakin behar du, baina larri badabil, laguntza izango duela.

Oro har, alde kognitiboak, emozionalak, sozialak eta komunikatiboak ikasleak bere buruarekiko duen irudian dute eragina eta hori onartzea beharrezko baldintza da aurrera jotzeko, lortu nahi dena lortzeko.

Haurren hezkuntzan inplikaturik dagoen irakasleak horiek guztiak kontuan izan beharko lituzke eta irakaskuntza sendo planifikatu beharko luke:

Helduen espektatibek ikasleentzako arrakasta mugatzen dute, irakasleentzako subjektibitatea giltzarri da.

zeregin berria irakasten duten gai eta zeregin interesgarriak, erroka intelektualak planteatzea eta parekoekin integratzea ahalbidetzen diotenak. Hizkuntza horietan irakatsiko zaio ikasleari, eta hizkuntza horretan ikasiko du ikasleak: zeregin interesgarrietan adierazpide ona bilatzen saiatzean.

Amaitzeko, hona hemen, laburki, bigarren hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez, oinarriko jokabide batzuk:

Irakaslearen oinarriko jokabide batzuk

1.- Ikasle bakoitzaren behar eta berezitasunei begiratu. Haren buruarekiko irudi ona bultzatzea oinarriko premia dela argi izan.

2.- Segurtasun afektiboa eman, bigarren hizkuntzan adierazteko egiten zaion akuilatzearen norainokoa neurrituz.

3.- Haurren ama hizkuntza eta berezitasun kulturalak balioetsi eta ulertzen saiatu.

4.- Betiere elkarren arteko ulermena ziurtatu, ikasleak hizkuntza modu guztietan erabiltzera bultzatuko dituzten estrategiak erabiliz.

5.- Irakaslearekiko harreman pertsonala erraztuko duten testuinguru egokiak sortu eta binakako eta talde txikiak elkarrekin ziurtatzeko ikasgelako lana programatu.

6.- Zeregin guztietan ikaslearen interesa inplikatu. Oinarriko adierazpideak menderatuz doan neurrian, erroka kognitiboa handitu.

7.- Ez pilatu oztopoak: adierazpide berriak zeregin ezagunen inguruan irakatsi.

8.- Zereginak planifikatu, hizkuntza formen inguruan arreta periferikoa eta arreta fokatu eskatzen duten zereginak txandatu.

9.- Ikasleentzako errakuntzei jaramon egiten zenbait jokabide eta estrategia erabiliz.

10.- Ikasleentzako teknika eta tresna egokiak eskaini beren hizkuntza arazoez gero eta kontzienteago izan daitezen, horien irtenbidea gero eta era autonomoagoan har dezaten beren gain. •

Hitzaldiak

Kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan gaiaren inguruko kezkei erantzunak emateko, interesgarriak gerta daitezkeen
HITZALDIAK

Barakaldoko Berritzegunean haur etorkinen inguruan hainbat hitzaldi antolatuta dira:

- Ikasleria etorkinari eskolaren erantzuna. Gelako esperientziak. Nola islatzen da gelan (otsailaren 11n)
- Etorkinek ahotsak. Bizitutako esperientziak (otsailaren 17an)

- Ikasleria etorkinari eskolaren erantzuna. Kanpoko laguntza (otsailaren 18an)
- Etorkina. Aukera bat nire gelan (martxoaren 2an)
www.gaztenet.com/barakaldob04
Tel.: 94 4 902 3 00

Congress on Language Diversity, Sustainability and Peace
Non: BARTZELONA
Noiz: 2004ko maiatzaren 20tik 23ra
www.linguapax.org

Language, Attitudes and Education in Multilingual cities
Non: BRUSELA
Noiz: 2004ko maiatzaren 27tik 28ra
bilingbr@vub.ac.be

I Congreso Internacional "TIC y Autonomía Aplicadas al Aprendizaje de las Lenguas"
Non: Castellón
Noiz: 2004ko maiatzaren 26tik 28ra
www.taaal.uji.es

Irakurleen txokoa

Txoko hau zeurea duzu, irakurle, eta bi aukera luzatzen dizkizugu: galderak egitea eta erantzunak ematea.

*** Haur etorkinen irakaslea naiz Barakaldoko ikastetxe batean. Ikasturte honetan hasi naiz beraiekin beharrean. Gai honen inguruan ez nekien ezer, eta gauetik egunera, haur etorkinen euskara laguntzaile bihurtu naiz. Hainbat ikastaro eta hitzalditara joaten nabil, ea zer edo zer laguntzekorik esango didaten edo esperantzarekin, baina, egia esan, benetan balio izan didaten gauza gutxi entzun ditut orain arte! Denok ere, nahiko galduta gabiltzala iruditzen zait. Hala ere, bada behin eta berriro entzuten ari naizen esaldi bat hitzaldietan, ikastetxean, nire egoera berdinean dauden irakasleei, atal honetako partaideei... eta sutan jartzen nau: "haur etorkinei euskara irakasteko ez dugu material didaktikorik, eta horrela, oso zaila edo ia ezinezkoa zaigu euskara irakastea". Egia da, bai, ni aurtan sartu naizela mundu honetan, baina orain arte haur etorkinekin izan dudak esperientziagatik, nik uste dut kexu hori erosotasunak eragiten digun kexua baino ez dela. Izan ere, hori diotenez, pentsatu al dute noizbait pertsonok hizkuntzak nola ikasten ditugun? Material didaktikoa benetan hain garrantzitsua ote da? Edo ez ote dute garrantzi gehiago material didaktikoak baino irakasleek haur horiekiko dituzten jarrerak? Eta pentsatu ote dute azken 30 urteotan haur erdaldunak euskal ikastetxeetan nola euskaldundu diren? Material didaktiko horiek, moldaketa urri batzuk eginda, ez al dute balio kasu horretarako? Haur hori ikasgelan eroso, gustura, integratua sentitzeak, ez ote du haur horrengan gure hizkuntza ikasteko eragin handiagoa izango material didaktiko ona izateak baino? Gu haur horren lekuan jarriko bagina hizkuntza berri bat ikasteko, zer izango zatekeen garrantzitsuena?... Eta... Zer da irakaskuntza? Irakaskuntzak, irakasle izateak, zer inplikatu du?*

Nik oraindik ez dut esperientzia gehiegi arlo honetan, baina nik uste dut, sarriegi eta ez haur etorkinekin soilik, irakasleok erosotasunean erortzen garela, eta irakaskuntza lanbide eta bokazio ez bada, zuhaitz horrek fruitu gutxi ematen ditu!

MAITE

Kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruko kezkek, galderak eta zalantzak badituzu, idatziezaguzu bi helbide hauek batera: itziamayo@msn.com edo aldizkaria@hikhasi.com Hartu-emanetarako bide berri honekin, dauzkagun kezkek denon artean eta elkarri gure esperientziak kontatuz bidera ditzakegu. Anima zaitetz!

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.


Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak otsaila

Publikotasuna ez da titulartasunean neurtzen



Euskararen lurra jorratuz Herririk herri: Euskal Herritik Europara euskararen lurra jorratuz jardunaldiak

Basauri-Galdakaoko Berritzeguneak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Gorbealde Elkartek jardunaldiak antolatu dituzte **martxoaren 22, 23 eta 24**rako.

Jardunaldiek bi xede dizute: bate-tik, eskualde horretako ikastetxeek hezkuntza eta hizkuntza normalkuntzarako elkarlanean garatu dituzten esperientzien berri ematea; eta bestetik, Europan gizartearen erronka berriei erantzuteko egindako hainbat esperientzia interesgarri aurkeztea.

Jardunaldietan parte hartzeko matrikula doan da, baina joan nahi dutenek mezu bat bidali behar dute herririkherri@herririkherri.com helbidera **otsailaren 27an baino lehen** hurrengo datuekin: izen-abizenak, telefonoa, NAN (agiria jasotzeko), egunak, helbidea (agiria bidaltzeko).

Informazio gehiagorako:
www.herririkherri.com
Tel: 94 456 51 16

“**Ekonomia soziala irakaskuntzan, herri onurako zerbitzua**” izenburupean burutu ziren Ikastolen Elkar-tea/Partaideren II. Topaketak Bilbon. Ikastolen egoera eta egungo gizartean duten lekua izan dira hizpide nagusiak. Ikastolei eguneroko jardueran sortzen zaizkien arazoetatik abiatuta, etorkizunari begira irtenbide eta alternatiba propioak mahaigaineratu nahi izan dira.

Horretarako, bi egunetan zehar gizarte ekonomiaren izaera eta ezaugarri filosofiko edo teknikoak eztabaidatu dira. Oro har, kooperatibismoa eta publiko/pribatu dikotomia izan dira ardatzak.

Lehenengoari dagokionez, EAEko ikastolen %85 kooperatibak direla kontuan izanik eta beste batzuk kooperatiba izateko prozesuan sartuta daudela jakinik, kooperatiben legedia aztertu da, bai Euskal Herrian eta bai Europan.

Bigarrenik, publiko/pribatu dikotomia gainditzeko beharra aipatu da behin eta berriz. Eta baita publikotasunaren definizioa zuzentzeko beharra ere. Ikastolei dagokionez, gizartetik sortutako ekimena direnez eta zerbitzu publikoa eskaintzen dutenez, administrazioaren aldetik eskola publikoek duten tratamendu bera eduki beharko lu-

ketela aldarrikatu zuten, batez ere finantziario eta arlo ekonomikoari dagokionez.

Publikotasuna gaitzat hartuta egin zen mahai inguruan iritziak entzuteko aukera izan zen. Partaidekoek, hezkuntza zerbitzu publikoa kudeatzen duten guztientzat eskubideak ez ezik, betebeharrak ere eskatu zituzten eta euren txostenean zehaztu dituzte. EIEF-FEREko kide Mikel Badiolak esan zuen egokiena gizarte eragileek eta administrazioak kontratua sinatzea dela, zerbitzu publikoa eragileen eskuetan uzteko. Horrela, ikastetxe publiko sozialak eta pribatu sozialak egongo lirarteke; denak eskubide eta finantziario berdinarekin, baina denak desberdinak. Eusko Ikastolen Batzako Ramon Madariagak gizartearen eskaerei lotutako eredia defendatu zuen.

Horrekin batera, eskola itun berri bat egiteko eskaera egin zuten. Izan ere, azkeneko eskola ituna 1997ra artekoa zen eta gerostik ez da ezer egin. Horrekin batera, eskola sistema osoa arautuko duen lege bat falta dela adierazi zuten, Euskal Eskola Publikoaren Legea esparru publikora mugatzen baita.

Sortzen-Ikasbatuaz en hausnarketak aurrera jarraitzen du



Sortzen-Ikasbatuazek "Eskola publikoa hausnarketa" jardunaldia egin zuten urtarilaren 17an. Ikastetxeetako ordezkariak eta hainbat gizarte eragile bildu ziren bertan egungo eskola publikoaren gaineko hausnarketarekin jarraitzeko. Izan ere, Sortzen-Ikasbatuazek iaz hasi zuten hausnarketa prozesua

eta maitzera arte luzatuko da.

Hausnarketa horrekin Euskal Herrian adostu eta Euskal Herrirako baliagarria izango den eskola publikoaren euskal eredia definitu nahi dute. Horretan jardun dira hainbat ikastetxetako irakasle, guraso eta ikasleak eta euskal eskola publikoak eduki beharko litzuz-

keen ezaugarri nagusiak adostu dituzte: euskalduna eta ele aniztuna; euskal curriculum propioa; ikastetxeen benetako autonomia pedagogian zein kudeaketan; 0 urtetik aurrera erabat finantzatu; eskolako komunitate osoaren parte-hartzea; lan esparru berria eta propioa; balio aurrerakoiak; laikoa, hezkidetzaila, kultur aniztuna; eta hezkuntza eragileen arteko elkarlana.

Horrekin batera, jardunaldian beste z en bait puntu ere agertu ziren. Besteak beste, euskal eskola publikoak protagonismoa hartu behar duela eta lehen planora ateratu behar duela, administrazioak zer esango zain egon gabe. Ikasleek euren presentzia eta parte-hartzea bermatzeko eskaera ere egin zuten.

Falta diren ekarpenak bildu ostean, hurrengo hilabeteetan behin betiko txostena osatu eta maiatzean aurkeztuko dute.

Hezkuntza mugia!

Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenak euskal hezkuntza mugimenduaren nazio mintegiak antolatu ditu **otsailaren 7**rako. Eibarko Unibertsitate Laboralean izango dira eta egitaraua honakoa izango da:

*** 9:30ean osoko bilkura**

- Mintegien aurkezpena
- "Inposaketarik ez! Euskal Herriak bere hezkuntza" ekimenaren balorazioa.

*** 10:30ean lehenengo gaia:**

Protokoloa

- Ariketa teoriko-praktikoa lan taldeka.

*** 12:15ean bigarren gaia: hezkuntza mugimendua**

- Hausnarketa eta eztabaida lan taldeka.

*** 13:45ean bazkaria**

*** 15:30ean osoko bilkura**

- Goizeko ondorioen aurkezpena.
- Euskal curriculumaren aldeko kanpainaren aurkezpena.

*** 16:00etan hirugarren gaia: euskal curriculum**

- Kanpainaren diseinua lan taldeka.

*** 18:00etan mintegien amaiera**

Mintegiak hezkuntzarekiko interesa duen herritar orori zuzenduta daude eta, bereziki, euskal hezkuntza komunitatearen parte direnei. Parte hartu nahi duenak izena ematearekin nahikoa du, eta honako bide hauek erabil ditzake:

- EHBeko kide bati eman.
- E-postaz: ehbe@euskalherria.org
- Telefonoz: 696 200 570

Mintegien gastuei aurre egiteko (bazkaria barne) 12 euro (6 euro langabetuek eta ikasleek) sartu behar dira Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0086 61 0860027919

Argitaipenak



Bizarzuri pirataren altxorra
Askoren artean
TTARTALO

Sei urteko haurrei zuzenduta dago liburua. Bizarzuri piratak, altxorra medio, abentura dibertigarrietan sartuko gaitu. Baina istorioan zehar, hainbat joko eta denborapasa agertzen zaizkigu, irakurlea jolasera bultzatzen dutenak. Haurren arreta eta irakurtzeko zaletasuna lantzeko material baliagarria da. Abenturak gogoko dituzten haurrentzat neurri-neurrikoa da, baita arreta lantzea behar dutentzat ere •



Max bazterrak nahasten
Laida Martinez
IBAIZABAL

Max bederatzi urteko mutikoa da. Hitz-totela. Aita itsasontziko kapitaina da eta amona, ama eta arrebarekin bizi da. Batzuetan bazterrak nahasten ditu konturatu gabe, eta denak haserretzen zaizkio. Gauzak gehiago nahastuko dira oraindik auzoan sorgin bat aurkitu duela iruditzen zaionean. Zortzi urte tik aurrerakoentzat idatzia da. Ipuinak "Lazarillo Saria" jaso zuen 2002an •



UEU euskal kulturgintzan.
Hasierako urteak 1973-1984
Mikel Aizpuru
UEU

Mikel Aizpuru Historian doktorea da, eta EHUKo irakaslea. Liburu hone-tan UEUren bilakaera jasotzen du, hasi 1973an Donibane Lohizunen sortu zenetik (Frankismoaren azken urteetan euskal kulturak bizi zuen loraldiaren erdian), eta atzo arte. Azken 30 urte-tan euskal gizarteak eta euskalgintzak bizi izan dituzten aldaketan lekuko garrantzitsua bilakatu da UEU •



Chattering
-solasean-
Askoren artean
GAIK

Eguneroko esamolde ingelesak bil-tzen ditu, euskarara eta gaztelaniara itzulita. Erregistro anitz ageri dira: jaso, arrunta, lagunartekoa eta trauskila. Esamoldeak bost zatitan daude ordenatu-ta: adimen-egoerak eta emozioak, adis-kidantza sentimenduak, kontrako sen-timenduak eta ekintzako hizkera. Inge-lesa ikasi/irakasteko egokia da •



Behinola
GALTZAGORRI ELKARTEA

Haur eta Gazte Literatura Aldizka-ria da Behinola. Azaroan 9. alea atera zuen. Mariasun Landaren ibilbideari buruzko artikuluaz gain, biziki interes-garria da Kiko Ruizek idatzitako beste hau ere: "Didaktismoa, pedagogia eta eduki ideologikoen eragina 90eko ha-markadako haur literaturan". Aldizka-rian liburuen erreseinak eta ikastaro zein lehiaketan berri ere ematen da •



Genero, nazio eta nazio hez-
kuntza: ikastoletako irakasleria
Milagros Amurrio Vélez
EHU

Liburu honetan euskal nazioaren e-raikuntzan emakumezkoek edozein nazionalismorentzat nazio identitate-a igortzeko eta zabaltzeko funtsezkoa den eremuan, hezkuntzan, izandako partaidetza aztertzen da. Ikastoletako une historikoetan aritutako emakume-en esperientziak eta kontakizunak bil-duz islatzen da •

Idatz ezazu Bargotako Aztiaren idazlan berri bat

Duela bi urte Interneten eta liburu formatuan argia ikusi zuen Bargotako Aztiak. Harrazkero web orriak 2.600 bisitari inguru izan ditu eta liburuaren hirugarren argitalpena ateratzeaz dago. Teknologia Berriak eta Liburuak kontrajarriak ez daudenaren seinale eta frogatuta da, ez bairrik gabe.

“Johanes, Bargotako aztia” Bi-nako Erentzun ikastolako irakasle talde batek egindako material didaktikoa da, Félix Cariñanos historiagilearen testuak oinarritzat harturik. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzuak lagundu zuen egitasmoa gauzatzen.

Bargotako Aztiaren egitasmoaren helburuetako bat haur, gazte eta helduei Nafarroako kultura hobeto ezagutzeko baliabideak eskaintzea da. Baita ikastetxeetan teknologia berrien erabilpena bultzatzea ere. Aldi berean, irakurketa eta idazketa era atsegin batez lantzea du xede. Eta azkenik, Internet baliatuz, haur eta gazteen sormena bultzatzea.



Horretarako, 2001eko azaroaren 21etik webgune bat dago martxan: www.pnte.cfn Navarra.es/bargotako-aztia/. Webgune horretan Bargotako Aztia pertsonaiaren inguruko informazio zabala dago; besteak beste, Johanesi buruzko 20 elezahar eta irakasleentzako gida didaktikoa. Gida didaktikoa prosamen pedagogikoak eta jarduerazehatzak eskaintzen dira, bereziki Lehen Hezkuntzaren 3. zikloan eta DBHko 1. zikloan lantzeko.

Webguneak izan dituen 2.600 bisitarietatik gehienak europarrak dira, baina Ameriketatik eta Australiatik ere iritsi dira.

Web orriarekin batera, Txalaparta argitaletxeak liburu formatuan argitaratu zuen Johanesen istorioa. Orain, bi urte pasata, lehenbiziko bi argitarape-

nak agortuta daude eta hirugarrena bidean da. Nahiz eta edukiak Interneten egon, liburua ongi saldu da, eta horrek frogatzen du Internet eta liburua ez direla elkarren etsai eta ez daudela kontrajarriak; aitzitik, elkarren osagarriak izan daitezkeela. Bargotako Aztiaren webguneak liburu eros daitezke.

Gida didaktikoa proposatzen den jarduerari bati jarraiki, ikasleek idazlanak egiteko aukera daukate. Gaia gelan lantzearekin batera, ikasleek gaiaren inguruko idazlan berri batzuk sor ditzakete, eta ondoren idazlan horiek bidaltzen ahal dituzte eta web orriari zintzilikatuak izanen dira.

Horrek guztiak balio erantsia ematen dio liburuari eta eskoletan eta institutuetan lantzeko tresna eraginkorra bihurtzen du. Bargotako Aztiaren itzala luzatuz doa.



Zumalakarregi Museoa XIX. mendea karikaturetan. Umorea, distortsioa eta kritika soziala erakusketa jarri du ikusgai Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. XIX. mendean karikaturagileak, irudia erabiliz, garai hartan irakurtzen eta idazten ez zekien publikoarengana iritsi ziren, eta orduko pentsamoldea eta gertaerak ezagutzeko aukera ematen digute orain.

Museoa hezkuntza maila desberdinei eta denbora libreko eta bestelako

erakundeetara egokitutako bisitaldi gidatuen programa berezia ere prestatu du. Eta erakusketa gain, Interneten erakusketa birtuala ere ikus daiteke.

Erakusketa martxoaren 13a arte egongo da ikusgai.


Informazio gehiagorako:

Zumalakarregi museoa

Kixkitza Ugarteburu

Tel: 943 889 900

mzumalakarregi@gipuzkoa.net



Nafarroako ikastetxeetako zuzendariok kezkatuta gaude gobernua hartzen ari den neurriekin

NIZE (Nafarroako Ikastetxeetako Zuzendaritzakideen Elkarte) Nafarroako D ereduko 55 ikastetxe publikotako zuzendaritza kidez osatua dago, bertan 7.400 ikasle eta 733 irakasle biltzen direlarik.

Elkartearen helburuen artean, bere partaideen lanaren koordinazioa erraztea dago, hezkuntza komunitateko sektore guztien ekarpenen bidez, kalitatezko eskola publiko euskaldun bat lortzeko, non ikasleen formazio integrala, ikastetxeetako kudeaketa demokratikoa eta parte-hartzailea eta euskara eta euskal kulturaren sustapena eguneroko lanaren ardatzak izan beharko diren.

Azken garaian Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak garatu dituen hezkuntza planak eta Kalitatearen Legeak islatzen dituenak, honako helburu horien kontra doazela uste dugu. Hori dela eta, honako dokumentu hau kaleratzea erabaki dugu, burututako aldaketek eta etorriko zaizkigunek eraman gaitzaketan egoerari buruzko lehenengo hausnarketa gisa.

Aldaketen dinamika

Nafarroako Hezkuntza Departamentuak egoki deritzazkion ildoak bultzatzen baditu ere, guk, gainontzeko eragileak bezala, horretan zer esanik badugula uste dugu:

Gure ustez, Nafarroako ikastetxe guztietako hezkuntzan eragina edukiko duten proposamenek gutxieneko baldintza batzuk bete beharko litzuzke, besteak beste:

- Aldez aurretik ezarritako Hezkuntza Legeen aplikazioak ebaluazio sakona beharko luke. Horren bitartez, bere alde onak eta gabeziak ikertu eta aztertuko lirateke.

- Hezkuntza sistemaren azterketa-tik lortutako emaitzen ebaluazioan in-

plikaturik egon beharko lukete hezkuntzan aktiboki aritu eta Legeak ezarritako helburuak urte luzez aurrera eramaten saiatu diren profesionalak eta guraso elkarteek.

- Ebaluazio sakon horretatik ondorioztatuta beharko lirateke hobetu beharreko ezaugarriak eta ildo sendoak.

Hezkuntza sistemak etengabeko aldaketak jasaten ditu Nafarroan. Administrazioak berak sortu eta bultzatzen dituen egitasmo eta aldaketa legalak bata bestearen atzetik pilatzen dira, aurrekoen eraginkortasuna frogatzeko denborarik eman gabe. Hezkuntzan ere, egitasmo batek bere denbora behar du hausnarketa egin ondoren praktikara eramateko eta etengabeko ebaluazioaren prozesuan egokitzeke. Hobe-kuntzarako jokaera horrek ez du zerikusirik Gobernutik etengabe sortzen diren asmo aldakorrek eta arau uholdearekin.

Irakasle eta gurasoekin kontatu gabe eta aurretik ikastetxeetan egindako hezkuntza proiektuak eta proiektu curricularren balorazioa aztertu gabe, nekez izan daitezke arrakastatsuak hobekuntzarako asmoak.

Haurraren garapena

Azken hilabete hauetan Administrazioak behin eta berriro erakutsi duen ikuspuntuan ikasleen garapena modu murriztean agertzen da. Ikuspuntu horrek eragin ezkorra eduki du egindako ebaluazioan, eta hemendik aurrerasortuko diren moldaketa curricular asko makurtuko ditu.

Hondar urteetan Hezkuntza Zientzien eta Psikologiaren zein Pedagogiaren ekarpenak gure eginez, Haur eta Lehen Hezkuntzan haurren komunikazio, memoria, pentsaera logikoa, irudimena eta ingurunearekiko ezagutzaren ahalmenak garatzea xedea izan du-

Gurasoentzako hitzaldiak Irungo Txingudi ikastolan

Otsailak 5

Generoaz dugun iritziak seme-alaben heziketan duen eragina. Txingudi ikastolako gurasoek erantzundako inkestaren emaitzetatik abiatuta aztertuko da gaia.

Hizlariak: **Itziar Alonso**, EHUko irakaslea eta **Manuel Sanchez de Miguel**, Psikologian doktorea.

Otsailak 12

Idazkera onak postura ona eskatzen du. Gurasoek zeresan eta zeregin handia dugu ondo idazteko ohi-turaren garapenean.

Hizlaria: **Irene Ibarra**, psikologoa, grafologoa eta EHUko irakaslea.

Lekua: Txingudi ikastolako bi-deo gela

Ordua: 19:00

Oharra

Hik Hasiren "Heriotza" monografikoan **Tere Azkaratek** proposamen didaktikoen itzulpenetan lagundu zuen eta **Patxi Izagirre** egileak horren berri eman nahi izan du.

gu. Horrek esan nahi du, prozesu horretan haurren garapen orokorra bermatu behar dugula eskoletan.

Azken urte hauetan, ikasleengan bereizten diren bost ahalmenen garapena izan dugu helburu:

- Kognitiboak: identifikatzea, ulertzea, aplikatzea, aztertzea, garatzea, ebaluatzea...

- Motrizak: mugitzea, koordinatzea, adierazpen fisikoa, eusteko gaitasuna, indarra, orientazioan aritzea...

- Afektiboak: kontzientzia hartzea; aukeratzen, erabakitzen eta erantzuten jakitea; baloratzea, balioak izaten eta antolatzen jakitea...

- Harremanak: taldea ezagutzea; jaso eta mandatuak bidaltzea; entzuteko, ideiak komunikatzeko, kritikak onartzeko eta egiteko gaitasuna edukitzea; erantzukizuna eta konpromisoa lantzea.

- Giza harremanak: gizartearekiko kontzientzia hartzea, harremanak sortzea, laguntza eskaintzea eta konpromisoak hartzeko gaitasunak bermatzea...

Etaparen bukaeran gure ikasleek bost ahalmen horietan garapenak erakutsi behar dituzte eta, ohi denez, horrek izan beharko luke Lehen Hezkuntzaren bukaeran ebaluatzeko oinarria.

Nafarroako Hezkuntza Departamentuak duela bi ikasurte eginiko hezkuntza sistemako ebaluazioan ikasleen ahalmen mota baten zati txiki bat aztertu zuen (matematika eta lengoaiaren bi galdetegietan kontzeptuzko edukiak identifikatzeko, ulertzeko eta aplikatzeko galderak besterik ez baitziren proposatzen). Aurten ere 2. eta 6. mailatan antzeko asmoak ditu. Dirudenez, gure ikasleen gaitasunak adierazi ahal izateko beste motatako deskriptoreek ez dute izanen inolako garrantzirik, esate baterako: kontzientzia hartzeko, taldean lan egiteko eta erantzukizuna garatzeko direnak.

Beraz, eginiko sistemaren kanpoko azterketa pobrea bezain maltzurra iruditzen zaigu hezkuntza zaharkitua eta konpetitiboaren alde jokatzeko duela. Gure iritziz ez dago kalitatea bultzatzerik ikuspuntu kamuts horietatik abiatuz.

Ikastetxeen autonomia

Legeak ikastetxeei aitortzen dien autonomiari dagokionez, hobekuntza prozesuetan ikastetxeen inplikazioa bultzatzeko eragile guztiei hitza ematea ezinbestekoa dela adierazi nahi dugu. Aginte hutsa ezin da gure gizartean hezkuntzaren aldaketak gauzatzeko prozedura izan. Irakasleen prestakuntza profesionala eta familien parte-hartze sakona, besteak beste, gutxieneko baldintzak dira benetako autonomia gauzatzeko.

Badirudi, hemendik aurrera Nafarroako ikastetxeok ahaztu egin beharko ditugula egindako proiektu eta lan proiektuak Hezkuntza Departamentuak bere kasa egin dituen asmoak indarrean jarriko direlako.

Iruditzen zaigu hezkuntza egitasmo berri batek bere giza baliabide proiektuak eta formazio berezia behar dituela. Administrazioak badu horren berri, beste etapatan planak aurrera eraman nahi izan dituen aspektu horiek ere kontuan hartu eta planifikatu egin baititu. Haur eta Lehen Hezkuntzan, ematen duenez, ez dago baldintza hori betetzeko asmorik.

Bestalde, LOEren ezarpenak arloen curriculumetan erakarriko dituen aldaketak ikusita (esaterako, zeharkako gai berriak sartzeko asmoa edo ordutegiaren araudietako aldaketak), lehen ikastetxe bakoitzaren errealitatea ikusita egokitzeke ziren aukera guztiak desagertzen dira. Dena zorrotz arautzen da moldaketarako aukerrik txikiena ezabatuz. Irakasleen kultura profesionala garatu ordez kamustu egiten da gure lanbideari beste garai iluneko ereduak ezarriz.

Ikastetxeen barne harremanei dagokienez, bestalde, aldatzera datozen egitasmo berriek (zuzendarien aukeraketa eskolaren testuingurutik ateratzea edo Eskola Kontseiluen gaitasunak murriztea), hemendik aurrera ikastetxe publiko bakoitzak Administrazioarekiko izango duen menpekotasuna azpimarratzen dute.

Kanpoko ebaluaketak iragarri diren moduan, gainera, ikastetxe bako-

itzaren balizko aukeraketa didaktikoak ahulduko ditu, programazioak bukarako ebaluaketaren arabera moldatzeko joera hartuko duelako.

Ikastetxearen autonomia curricularra erabat ezabaturik eta akiturik gelditzen dela ondorioztatzen dugu aurrekoarekin.

Ikastetxearen bizitza garatzea

Bukatzeko, orain arte ikastetxeetan egindako lanarekin jarraitu nahi dugula eta honetan saiatuko gara adierazi nahi dugu. Gure ikastetxeetan ildo hauetan ahaleginak egingo ditugu:

- Irakaskuntza publikoan giza baliabideak eta materialak eskatuko ditugun azken urteetan nabarmentzen ditugun gabeziak ikusita: eraikin eskasak eta zaharkituak kasu askotan, ikasleen integrazioarako irakasle falta, behar berezietarako baliabideen eskasia,...

- Etengabeko aldaketen aurrean hezkuntza sistemak lasaitasuna eta hausnarketa gehiago behar ditu. Gure esparrutik giro hori sortzeko konpromisoa hartzen dugu.

- Ikastetxe bakoitzak arduraz eta ilusioz bere ezaugarriak kontuan hartuz, hezkuntza proiektuak garatzeko egin duen historia eta gaitasuna bultzatuko dugu.

- Ikasleak bere osotasunean hezteko dugun konpromisoa azpimarratu nahi dugu, gaitasun motrizak, afektiboak edo harremanetarakoak landuz eta ez kognitiboak soilik.

- Irakasleen kultura profesional irekia eta berritzailea garatzeko premia azpimarratuko dugu guregan, Administrazioetik etsipena, pasibitatea eta lanaren garrantziaren galera bultzatzen denean.

- Ikastetxeko komunitatean barne parte-hartzea landu eta zabaldu behar dugu asmo, kritika eta gatazkak modu eraikitzailean aztertzeko. Ikasle, irakasle edo familiek bide ugari eta irekiak edukitzea ezinbestekoa da ikastetxeen bizitza garatzeko.

NIZE (Nafarroako Ikastetxeetako Zuzendaritzakideen Elkartea)

Muga guztien gainera ...euskaraz!

Irratia, mintzamina lantzeko makina Barakaldoko Beurko institutua

Barakaldok 100.000 biztanle inguru ditu. Horietatik %10ak daki euskaraz. Herri barnuan dagoen D ereduko institutu bakarra da Beurko institutua. 520 ikasle dabilta bertan. Institutuak harremanak ditu herrian euskara sustatzeaz arduratzen diren taldeekin: AEK-k institutuan bertan eskaintzen ditu ikastaroak, EGA titulua ateratzeko eta hizkuntza eskolako azterketa prestatzeko. Sasiburu euskara taldekoek ere herriko egerari buruzko hitzaldiak eskaintzen dituzte, ikasleak kontzientzia daitezen euren egeraz, eta Alazipo euskarazko musika eskolarekin ere harremanetan daude.

Beurko institutua duela 7 urte hasi zen Hizkuntza Normalkuntza Plana lantzen. Lehen urratsa, dokumentu denak euskaratzea eta harreman denak euskaraz egitea izan zen. Gurasoek charrak bi hizkuntzatan edo euskara hutsean jasotzen dituzte jada. Lehenengoz, eskola kontseilua euskara hutsean egin dute aurten.



Juanjo Arrizabalaga



Mariano Belloso

Beurko institutuan, gurasoetan %3 da euskalduna. Ikasleek euskaraz egiteko duten eremu ia bakarra eskola da. Mariano Belloso Euskara irakaslearen hitzetan, *“hemensortu den arazoa erabilera da. Ikasleek duten euskara maila ez da txarra, baina gero euren artean ez dute euskaraz egiten”*.

Mintzamina lantzea eta erabilera akuilatzea zen, bada, Euskara mintegiaren kezka nagusia. Beste kezka bat ere bazuten, ordea: euskarari dagozkion ekimenak zergatik bideratu ohi diren Euskara mintegitik soilik, izatez, irakasle guztiak direnean hizkuntza irakasle.





Irratia iruditu zitzaien tresnarik egokiena euskara gazteen ahotik patiora zabaltzeko, eta ikasgelan ere oihartzuna izateko. Gainera, hainbat ikasgaitan presta zitezkeen irratsaioak, irakasle denen inplikazioa lortuz, eta diziplina arteko loturan oinarritutako ikas-prozesuak indartuz.

Irrakaslearen prestakuntza

Hiru urte joan dira irrattia muntatzeko urratsetan hasi zirenetik. Euskara mintegiak lehenik zuzendaritzari aurkeztu zion proiektua. Ondoren, klausuroan planteatu, honek baietza eman, eta martxan jarri ziren.

Irratiari buruzko formazioa jasotzea etorri zen gero. Klausuroak ikastaro txiki bat egiteaz gain, trebatu nahi zuten irakasleek irratiako profesionalen eskutik jaso zuten ikastarorik, baita beste eskoletako esperientzien berri izan ere. Berritzegunetik baliatu zituzten aukera horiek.

Jakina, irrattia entzuteko, lehenik txanpon hotsa behar: gela bat egokitu beharra zegoen eta intsonorizatu, irrati tresneriak erosi, ordenagailuak, bozgorailuak patiorako... Hiru urtetan pixkanaka egindako inbertsioak izan dira, denera 9.000 euro inguru kostatzen direnak. Diru laguntzarik gabe ez lukete halako proiekturik aurrera ateraterik izango. Eusko Jaurlaritzatik, NOLEGA proiektuaren bidez, zenbait laguntza eskuratu dituzte muntaiarako.

Irratia: informazioa ehuntzen ikasteko gela

Oso garbi zuten irrattia ez zutela hautazko ikasgai gisa eskaini nahi, edo tailer gisa; izan ere, irakasleek ez zuten nahi irrattia ikasle batzuk soilik probatzerik. Pixkanaka, ikasle denak bertatik pasatzea zen nahi zutena.

Irratigintza hainbat modutan landu dute ziklo bakoitzean. 1. zikloan, Euskarako eskoletan bikoizketak lortu dituzte: alegia, euskarako lau saiostatik bat hartzen dutela mintzamena lantzeko, eta saio horretan bi irakasle aritzen direla gela berean, taldea bitan banatu-

ta mintzamena errazago lantzeko. Bikoizketatan, ikasleak zazpi laguneko taldetan banatu eta eskaletak prestatzen dituzte. Taldeek hautatzen dituzte gaiak; albisteak izan ohi dira sarri. Beste talde batzuk gai monografikoetara jotzen dute ("Prestige", "piercing-a", "tabakoa" eta gisako gaiak). Informazioa bilatu, sintesia egin, irratirako moduko testua idatzi eta, gelan sartuta entseatu ondoren, irratira joaten dira grabatzera. Irratian aspektu tekniko batzuk ere irakasten zaizkie.

Talde bat irratiaren bitartean, beste ikasleek irratsaioa entzuten dute, ondoren zer iruditu zaien komentatzeko; zer gustatu zaien, akatsak non egon diren... Ikasleek saioa entzunda jasotzen duten inpresioa jakin ondoren, beste zinta bat entzuten dute: irratsaioa grabatu bitartean egindako frogak, akats,





zu-zenketa eta errepikapen denak biltzen dituen zinta. Eta konparatu egiten dute ea grabatu bitartean egindako akats denak, irratiz bota duten azken grabazioan zuzendu dituzten edo ez. *“Eurentzat lan hori oso garrantzitsua da- dio Mariano Beloso irakasleak-egindako akatsak zuzentzen ikasten dutelako, eta ikaskideek laudoriorik, lorerik botaz gero eurentzat balio bikoitza dutelako hitzok, irakasleak esanda baino”*.

Bigarren ziklokoa libreagoa izaten da, ikasleak autonomoagoak baitira. Saioak ikasleek bakarrik prestatu ohi dituzte, bai Euskarako eskoletan tartertxo bat hartuz, edo baita... jolasorduetan ere! Motibazioa badagoen seinale! Informazioa eurek bilatu ohi dute (Internetek asko errazten baitu lan hori), nahiz eta irakasleen laguntza ere baduten behar dutenerako. Aparailuak ere eurek bakarrik maneiatzen dituzte. Lagun koadrila zabal bat bada uhinetara itsatsita gelditu dena, eta jolasorduoro irratira jotzen dute; patioan ere entzuten da, anplifikadoreen bidez, euren saioa. Nola ez, adin horretan hain gustuko dutena egiten dute: musika saioa. Musika gazteak erakartzeko imana da, eta jolasordutan patiora euskara eramatea behintzat lortu dute.

Futbito emankizunak, irradi nobelak, gai monografikoak...

Iaz 30 irratsaio inguru grabatu zituzten. Ez zaie ahaztu, institutuan egindako futbito txapelketa zuzenean eman zutenekoa, “Champions” en abesti eta guzti (eta pentsa kirol emankizun batek eskatzen duen hitz jariora zer den!). Baina gehien gustatu zaien irratsaioa, Barakaldora metroa iritsi zenean egin

zutena da. Eneko Aspe, Batxilergoko 2. mailako ikasleak (eta irratizale amorratuak) halaxe kontatzen digu: *“Herriko metro sarrera batera joan ginen, jendea elkarrizketatzera. Grabagailua eta bideo*

kamera bat ere eramán genuen. Oso ondo pasa genuen; jendea laguntzeko pronto zegoen”. Kale elkarrizketatan gozatu zuten arren, aurretik lan handia egin behar izan zuten. Elkarrizketatzeko euskaldun jendea bilatu beharko zuten, lehenengo Barakaldon euskararen egoera zein den aztertu zuten, jakiteko zer adinetako jendea izan zitekeen eurek behar zutena. Elkarrizketak nola egin ere landu zuten.


Bizkaia irratitik ere hots egin diete, eskolen artean antolatzen duten irratsaio lehiaketan parte har dezaten. Irrati nobela bat prestatzen ari dira lehiaketarako, beste zenbait gai monografikoz gain. Motibazioa piztu du dei horrek ere.

Iorpenak eta trabak

Gustura daude hiru urteotako esperientziarekin. Mariano Bellosoren hitzetan, *“platoan dauden artean behintzat euskaraz egiten dute. Eta horijada ez da gutxi, aurrerapauso handia da guretzat”*. Bestetik, hizkuntza lantzen dute: ongi ahoskatzen ikasten dute, on-

gi irakurtzen, informazioa ongi idazten (irakurri eta lehenengoan uler dadin). Eta gainera, informazioaren gizarte honetan hain garrantzitsua dena ikasten dute: informazioa bildu, garrantzitsuen hautatu, sintesia egin eta azkenik zeure irakurketa eskaintzea. Alegia, ikasten ikasi dutela iratiaren bidez, eta berezko motibazio batek tirata; irratia ikasleentzat imana baita, eurentzat ez da “lanerako lekua”, gustuko tokia baizik. Horren adibide da, jolasorduetan euren borondatez sartzen direla irratian, gustuko musika jarri bitartean euskara aieraturaz patio osora. Irakasleei dagokienez, nahiz Euskara mintegiko hiru irakasleek hartu duten, batez ere, iratiaren ardura (Juanjo Arrizabalagak, Mariano Bellosok eta Belen Oleagordiak), beste alorretako irakasleak ere hasi dira pittinka-pittinka gerturatzen. Ingeleseko irakasle batek eta Kimikako beste batek jada irratsaioaren bat prestatu omen dute ikasleekin, euren gaien inguruan.

Trabak ere badituzte, ordea: denbora da bata, irratsaio bakoitza ongi prestatzeak ordu asko eskatzen baitu. Bestetik, bat-batekotasuna eta hizkuntza ez-formala bultzatzeko ere mugak dituzte. Denei bezala, gazteoi ere mikrofonoak errespetua sartzen die, eta inprobisazioari tarte uztea, edota lagunarteko hizkera sortzea ez da erraza. Horietxek omen aurrera begirako erronkak. ●



Aurrea hartuta

